

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.06.30

Tolosako Udaletxean, 2014ko ekainaren 30ean, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udaltza biltu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 30 de junio de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Asier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Mikel Arreseigor Astibia
Rosa Maria Urkola Irigoyen
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Nerea Letamendia Belloso

Olatz Peon Ormazabal
Ainhoa Etxeberria Aranburu
Jon Aldazabal Etxeberria
Jokin Azkue Arrastoa
Nuria Carbonell Miranda
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratua:

Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Behin behineko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Behin-behineko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai zerrenda

Orden del día

- | | |
|---|--|
| <p>1.- Ondorengo aktak onartzea:</p> <p>2014ko maiatzaren 13ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.
2014ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkurakoa</p> | <p>1.- Aprobación de las siguientes actas:</p> <p>Sesión Extraordinaria de 13 de mayo de 2014.
Sesión Ordinaria de 27 de mayo de 2014.</p> |
| <p>2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:</p> <p>2014ko maiatzaren 5etik 30era(634/2014-799/2014).</p> | <p>2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:</p> <p>Del 5 de mayo al 30 de mayo 2014 (634/2014-799/2014).</p> |
| <p>3.- Junta orokorraren funtzioetan: 2013ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartzea:</p> <p>Tolargi, S.L.</p> <p>Erretengibel, S.A.</p> <p>Tolosa Lantzen, S.A.</p> <p>Tolosa Lotzen, S.A.</p> | <p>3.- En funciones de Junta General: aprobación de las cuentas del ejercicio de 2013:</p> <p>Cuentas de Tolargi, SL.</p> <p>Cuentas de Erretengibel, SA.</p> <p>Cuentas de Tolosa Lantzen, SA.</p> <p>Cuentas de Tolosa Lotzen, SA.</p> |
| <p>4.- 3/2014 Kreditu aldaketa. Tolosako Udala.</p> | <p>4.- Modificación de Créditos 3/2014. Ayuntamiento de Tolosa.</p> |
| <p>5.- Kreditu aldaketa eta egonkortasuna. Komunikazioa Plenoari.</p> | <p>5.- Modificación de Créditos y estabilidad. Notificación al Pleno.</p> |
| <p>6.- Kreditu konpromezuaren onarpena.</p> | <p>6.- Aprobación de Crédito de Compromiso.</p> |
| <p>7.- Tolosa Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko 2014ko programa onartzea.</p> | <p>7.- Programa de racionalización de recursos humanos del Ayuntamiento de Tolosa para el año 2014.</p> |
| <p>8.- Tolosako Udala Goiener, S.Koop-ean, bazkide kolaboratzaile gisa onartzeko eskaera.</p> | <p>8.- Solicitud para que el Ayuntamiento de Tolosa forme parte de Goiener, S.Koop., como socio colaborador.</p> |
| <p>9.- Ekainaren 28a, gay, lesbiana eta transexualen eskubideen nazioarteko eguna. Adierazpen instituzionala.</p> | <p>9.- 28 de junio, día internacional de los derechos de gay-s, lesbianas y transexuales. Declaración institucional.</p> |
| <p>10.-Foro Errepublikanoak aurkeztutako mozioa. Erreferendum egiteko proposamena.</p> | <p>10.-Moción presentada por Foro Republicano. Propuesta de Referéndum.</p> |
| <p>11.-EH Bilduk aurkeztutako Euskal Kutxen etorkizunari buruzko mozioa.</p> | <p>11.-Moción de EH Bildu sobre el futuro de las Cajas Vascas.</p> |
| <p>12.-LAB sindikatuak negozio kolektiboaren aldeko mozioa.</p> | <p>12.-Moción del sindicato LAB en favor de la negociación colectiva.</p> |

13.- Galde-eskeak.

13.-Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia:

1.- Ondorengo aktak onartzea:

1.- Aprobación de las siguientes actas:

2014ko maiatzaren 13ko Aparteko Osoko Bilkurakoa.
2014ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkurakoa

Sesión Extraordinaria de 13 de mayo de 2014.
Sesión Ordinaria de 27 de mayo de 2014.

Ondoren, izenburuan aipatutako aktak, aho batez, **onartu** dira, xehetasun hauekin:

- 2014ko maiatzaren 13koa:

... Lore Agirre Zipitriak, Bildu-k, eskatuta zuzenketa hauek egin dira:

“11. orrian fiskalitate batetaz hitz egiten denean, bi gauza nahasten dira: <<ari zarete>> izango da, ez nahasten <<ari gara>>. Eta errefuxaren tonako prezioa ez dira 42 euro, baizik eta 142 euro. Eta aurreaxeago, 12. orrian, hor aipatzen da Jon Aldazabal zinegotziari zuzenduz, eta ez natzaio Aldazabali zuzentzen ari, baizik eta Olatz Peoni”.

... Olatz Peon Ormazabalek, EAJ/PNV-k, eskatutako zuzenketa hauek egin dira:

“7. orrian, interbentzioan, lehen paragrafoan, irakurri nituen Alkatearen hitz batzuk web orrian sartzen zirenak; gustatuko litzaidake hitz horiek jasotzea; eta ez aipamen egitea hitz batzuk irakurri nituela, baizik eta horiek jasotzea”.

Beraz, hitz horiek sartu dira.

- 2014ko maiatzaren 27koa:

... Lore Agirre Zipitriak, Bildu-k, eskatuta 22.orrian bere parte hartzea osatu da, ez delako ideia hau jaso:

“Eskumen berrantolaketa 12/2008 Legearen araberarakoa 2009 urtetik egina egon behar zuen eta orain arte ez da egin; PNV-k aurreko legealdian, bai Aldundian eta bai Udalean ez da hau gauzatzeko gai izan. Aldundiak egin ditu bere etxeko lanak. Bakoitzak bere eginkizunak egin beharra dauzkate”.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2014ko maiatzaren 5etik 30era(634/2014-799/2014).

Del 5 de mayo al 30 de mayo 2014 (634/2014-799/2014).

Alkatetzak 2014ko maiatzaren 5etik 30era bitartean (634/2014-799/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

- | | |
|--|---|
| <p>3.- Junta orokorraren funtzioetan: 2013ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartzea:
Tolargi, S.L.
Erretengibel, S.A.
Tolosa Lantzen, S.A.
Tolosa Lotzen, S.A.</p> | <p>3.- En funciones de Junta General: aprobación de las cuentas del ejercicio de 2013:
Cuentas de Tolargi, S.L.
Cuentas de Erretengibel, S.A.
Cuentas de Tolosa Lantzen, S.A.
Cuentas de Tolosa Lotzen, S.A.</p> |
|--|---|

Sozietate hauek Batzar Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratzen dira:

Tolargi, S.L.
Erretengibel, S.A.
Tolosa Lantzen, S.A.
Tolosa Lotzen, S.A.

Bakoitzean Lehendakari eta idazkari karguak izendatzen dira.

Jarraian, Udalbatzak Batzorde Unibertsal gisa, aho batez,

ERABAKI DU:

Onartzea aipatutako sozietateen 2013. ekitaldiko urteko kontuak.

- | | | |
|--|--|-----------------------|
| <p>4.- 3/2014 Kreditu aldaketa. Tolosako Udala.</p> | <p>4.- Modificación de Créditos
Ayuntamiento de Tolosa.</p> | <p>3/2014.</p> |
|--|--|-----------------------|

Tolosako Udalaren 2014ko Aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien, gaikuntzaren eta transferentzien bidez izapidetzen den espedientea tramitatzen ari da.

Horrela, kreditu aldaketarako proposamena hau da:

TOLOSAKO UDALA. 3/2014 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN LABURPENA

1. GASTU IGOERAREN PROPOSAMENA			
Gastu igoeraren banaketa kapituluka hau da:			
1.1 Gastu arrunta			
Kap. 1 Pertsonal gastuak	0,00		
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	96.000,00		
Kap. 4 Transferentzi arruntak	30.900,00	126.900,00	
Kap. 3 Finantza gastuak		0,00	
Kap. 9 Finantza pasiboak (maileguen amortizazioa)		0,00	126.900,00
1.2 Inbertsioa			
Kap. 6 Inbertsio errealak		1.167.000,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		27.000,00	
Kap. 8 Finantza aktiboak		1.000,00	1.195.000,00
GASTU IGOERA PROPOSAMENA GUZTIRA:			1.321.900,00
2. FINANTZIAZIOA			
2.1 Kreditu transferentzien bidez finantziatuta			
Gastu arrunta :			
Kap. 1 Pertsonal gastuak	0,00		
Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	25.900,00		
Kap. 4 Transferentzi arruntak	114.000,00	139.900,00	
Kap. 3 Finantza gastuak (maileguen interesak)		0,00	139.900,00
Inbertsioa			
Kap. 6 Inbertsio errealak		45.000,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		0,00	45.000,00
Kreditu tansferentzien bidez finantziatuta guztira:			184.900,00
2.2 Sarrera berriak edo handiagoak izateagatik kreditu gaikuntzaren bidez finantziatuta			
Kap. 3 Tasak eta beste sarrerak			
Kap. 4 Transferentzi arruntak			
Kap. 5 Ondare sarrerak		0,00	
Kap. 7 Kapital transferentziak		60.083,00	60.083,00
2.3 Diruzaintza gerakinaren bidez finantziatuta			
Kap. 8 Finantza aktiboak			
FINANTZIAZIOA GUZTIRA:			1.321.900,00
3. LABURPENA			
Gastu igoera guztira			
Finantziazioa :			
- Kreditu transferentzia		184.900,00	
- Kreditu gaikuntza		60.083,00	
- Diruzaintzako gerakinarekin kreditu gehigarriak		1.076.917,00	1.321.900,00

2014ko Sarrera eta Gastuen Aurrekontuen bilakaera, 3/2014 zenbakidun Kreditu Aldaketarako espedientea barne, ondorengo koadroetan laburtzen da kapituluka:

AZALPENA	Hasierako Aurrekontua 2014	Kreditu Aldaketa 1/2014	Kreditu Aldaketa 2/2014	Kreditu Aldaketa 3/2014	Behin-betiko Aurrekontua 2014
1. Pertsonal gastuak	7.713.582,00	0,00	0,00	0,00	7.713.582,00
2. Ondasunen erosketa eta zerbitzuak	8.136.999,00	31.414,35	-55.000,00	70.100,00	8.183.513,35
3. Finantza gastuak	230.000,00	0,00	0,00	0,00	230.000,00
4. Transferentzi arruntak	4.542.392,00	67.651,65	51.800,00	-83.100,00	4.578.743,65
6. Inbertsio errealak	3.894.127,00	3.460.759,89	0,00	1.122.000,00	8.476.886,89
7. Kapital transferentziak	166.800,00	0,00	0,00	27.000,00	193.800,00
8. Aktibo finantzarioak	600.000,00	0,00	3.200,00	1.000,00	604.200,00
9. Pasibo finantzarioak	862.100,00	0,00	0,00	0,00	862.100,00
GASTUAK GUZTIRA	26.146.000,00	3.559.825,89	0,00	1.137.000,00	30.842.825,89

TOLOSAKO UDALAREN SARREREN AURREKONTUA 2014

AZALPENA	Hasierako Aurrekontua 2014	Kreditu Aldaketa 1/2014	Kreditu Aldaketa 2/2014	Kreditu Aldaketa 3/2014	Behin-betiko Aurrekontua 2014
1. Zuzeneko zergak	5.563.401,00	0,00	0,00	0,00	5.563.401,00
2. Zeharkako zergak	251.500,00	0,00	0,00	0,00	251.500,00
3. Tasak eta bestelako sarrerak	3.609.587,00	0,00	0,00	0,00	3.609.587,00
4. Transferentzi arruntak	12.591.023,00	0,00	0,00	0,00	12.591.023,00
5. Ondasun sarrerak	958.862,00	0,00	0,00	0,00	958.862,00
6. Inbertsioen besterenganaketa	1.542.000,00	0,00	0,00	0,00	1.542.000,00
7. Kapital transferentziak	729.627,00	655.171,73	0,00	60.083,00	1.444.881,73
8. Aktibo finantzarioak	600.000,00	1.918.043,79	0,00	1.076.917,00	3.594.960,79
9. Pasibo finantzarioak	300.000,00	986.610,37	0,00	0,00	1.286.610,37
SARRERAK GUZTIRA	26.146.000,00	3.559.825,89	0,00	1.137.000,00	30.842.825,89

TOLOSAKO UDALAREN 3/2014 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA

	PARTIDA			Hasierako		Aldatutako	Kreditu Aldaketa		Aldatutako	Finantzazioa	Finantzazioa	Finantzazioa	Finantzazioa	Finantzazioa	Finantzazioa
	Org	Eko	Fun	Aurrekontua	Aurrekontua	Aurrekontua	Gehi	Jeitsi	Aurrekontua	Kreditu	Kanpoko	Sarrera	Gastuei lotutako	Gastu orokor.	Guztira
				2014	2/2014 esp.	3/2014 esp.			3/2014 esp.	transferentzia	ekarpenak	handiagoak	gerakina	gerakina	3/2014 esp.
AZALPENA															
							0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Kap.1:				0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
KAP.2 ONDASUN ARRUTEN GASTUAK															
Hornidurak. Udaltzaingoa	0400	221.99	22200	14.635,00	14.635,00	30.635,00	16.000,00	0,00	16.000,00	16.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	16.000,00
Zergak. Nekazaritza	0700	225.04	53100	618,00	618,00	218,00	0,00	400,00	-400,00	-400,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-400,00
Publizitatea. Idazkaritza	0300	226.03	12120	6.000,00	6.000,00	4.500,00	0,00	1.500,00	-1.500,00	-1.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-1.500,00
Gastu juridikoak. Hirigintza	0600	226.04	43200	30.000,00	30.000,00	70.000,00	40.000,00	0,00	40.000,00	40.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	40.000,00
Jarduerak. Kultura	0800	226.06	45110	167.300,00	167.300,00	172.300,00	5.000,00	0,00	5.000,00	5.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	5.000,00
Jarduerak. Garapen ekonomikoa	1100	226.06	32210	29.800,00	29.800,00	41.800,00	12.000,00	0,00	12.000,00	12.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	12.000,00
Jarduerak: Ingurumena	1100	226.06	44400	75.620,00	75.620,00	62.620,00	0,00	13.000,00	-13.000,00	-13.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-13.000,00
Jarduerak: Feriak	1100	226.06	62200	121.900,00	121.900,00	110.900,00	0,00	11.000,00	-11.000,00	-11.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-11.000,00
Beste hainbat gastu. Hirigintza	0600	226.99	43200	9.000,00	9.000,00	15.000,00	6.000,00	0,00	6.000,00	6.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	6.000,00
Beste hainbat gastu. Enplegu planak	1100	226.99	32211	71.000,00	71.000,00	88.000,00	17.000,00	0,00	17.000,00	17.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	17.000,00
Kap.2:				525.873,00	525.873,00	595.973,00	96.000,00	25.900,00	70.100,00	70.100,00	0,00	0,00	0,00	0,00	70.100,00
KAP.4 TRANSFERENTZIA ARRRUNTAK															
Tolosaldea Garatzen-i	1100	422.01	32230	150.000,00	201.800,00	139.800,00	0,00	62.000,00	-62.000,00	-62.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-62.000,00
Tolomendiri	0700	422.01	53100	29.500,00	29.500,00	40.900,00	11.400,00	0,00	11.400,00	11.400,00	0,00	0,00	0,00	0,00	11.400,00
Dirulaguntzak enpresei. Enplegu planak	1100	471.01	32211	631.000,00	631.000,00	584.000,00	0,00	47.000,00	-47.000,00	-47.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-47.000,00
Dirulaguntzak kontsezioetan	0300	481.01	12120	0,00	0,00	1.500,00	1.500,00	0,00	1.500,00	1.500,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.500,00
Dirulaguntzak. Kultura	0800	481.01	45110	121.000,00	121.000,00	116.000,00	0,00	5.000,00	-5.000,00	-5.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-5.000,00
Dirulaguntzak. Garapen ekonomikoa	1100	481.01	32210	21.500,00	21.500,00	39.500,00	18.000,00	0,00	18.000,00	18.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	18.000,00

Kap. 4 :				953.000,00	1.004.800,00	921.700,00	30.900,00	114.000,00	-83.100,00	-83.100,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-83.100,00
KAP.6 INBERTSIOAK															
Inbertsioa lurretan	0700	600.01	51120	1.000.000,00	1.000.000,00	1.416.000,00	416.000,00	0,00	416.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	416.000,00	416.000,00
Nekazaritza auzoetako plana	0700	601.07	53100	120.000,00	120.000,00	75.000,00	0,00	45.000,00	-45.000,00	-45.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-45.000,00
Zenbait eraikinetako obrak	0700	622.01	43300	60.000,00	60.000,00	455.000,00	395.000,00	0,00	395.000,00	45.000,00	0,00	0,00	0,00	350.000,00	395.000,00
Argi publikoa	0700	623.05	43500	20.000,00	20.000,00	80.000,00	60.000,00	0,00	60.000,00	0,00	20.969,00	0,00	0,00	39.031,00	60.000,00
Hondakinen kudeaketarako konpostadoreak	0700	625.98	44210	0,00	0,00	35.000,00	35.000,00	0,00	35.000,00	13.000,00	0,00	0,00	0,00	22.000,00	35.000,00
Bestelako inbertsioak. Landa garapena	1100	629.01	44400	0,00	0,00	84.000,00	84.000,00	0,00	84.000,00		39.114,00	0,00	0,00	44.886,00	84.000,00
Bestelako inbertsioak. Bide publikoak	0700	629.01	51120	0,00	0,00	157.000,00	157.000,00	0,00	157.000,00		0,00	0,00	0,00	157.000,00	157.000,00
Planeamendua	0600	642.01	43200	70.000,00	70.000,00	90.000,00	20.000,00	0,00	20.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	20.000,00	20.000,00
Kap. 6 :				1.270.000,00	1.270.000,00	2.392.000,00	1.167.000,00	45.000,00	1.122.000,00	13.000,00	60.083,00	0,00	0,00	1.048.917,00	1.122.000,00
KAP.7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK															
Kapital transferentziak Hirigintza	0600	780.01	43200	35.000,00	35.000,00	62.000,00	27.000,00	0,00	27.000,00		0,00	0,00	0,00	27.000,00	27.000,00
Kap.7 :				35.000,00	35.000,00	62.000,00	27.000,00	0,00	27.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	27.000,00	27.000,00
KAP.8 FINANTZA AKTIBOAK															
Akzioak eskuratzea	0200	853.01	61100	0,00	0,00	1.000,00	1.000,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.000,00	1.000,00
Kap.8 :				0,00	0,00	1.000,00	1.000,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.000,00	1.000,00
GUZTIRA :				2.783.873,00	2.835.673,00	3.972.673,00	1.321.900,00	184.900,00	1.137.000,00	0,00	60.083,00	0,00	0,00	1.076.917,00	1.137.000,00
LABURPENA															
Gastu Arrunta (Kaps. 1+2+4)				1.478.873,00	1.530.673,00	1.517.673,00	126.900,00	139.900,00	-13.000,00	-13.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-13.000,00
Inbertsioak (Kaps. 6+7+8)				1.305.000,00	1.305.000,00	2.455.000,00	1.195.000,00	45.000,00	1.150.000,00	13.000,00	60.083,00	0,00	0,00	1.076.917,00	1.150.000,00

Beraz, 3/2014 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekurtsok aztertu ondoren.

Kontuan harturik, gastuaren premiazko beharra nahikoa egiaztatzen dela, hala nola igoera horiek finantzatzen dituzten errekurtsoen efektibotasuna, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuen kudeaketa hobetu egingo duela.

Ikusiz kontuhartzaileak jaulki duen txostena, non agerian dagoen espedientearen instrukzioa indarrean dagoen legezko arautegiarekin bat datorrela, eta Ogasun batzordeak, 2014ko ekainaren 19an jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

Lehena.- Tolosako Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 3/2014 kreditu aldaketa haseraz onartzea.

Bigarrena.- Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

Parte hartzeak:

... Lore Agirre Zipitria, Bildu:

“Ogasun Batzordean tratatu zen gaia, pixka bat aipatu: aurreko maiatzeko Plenoko likidazioan aurkeztu genuen bezala, emaitza positiboekin amaitu zenez urtea, beste proiektu berri batzuk martxan jartzeko aukera ikusi dugu eta, horregatik, egin dugu proiektu berri hau. Zenbateko garrantzitsuena Santa Luziako lur desjabetzearen azken zatia ordaintzeko burutzen da: 826.000 euro ordaindu behar ditugu lur zati horregatik, kreditu aldaketa honetan kontuei dagokionean erdia jasotzen delarik. Gero, batez ere aipatu, lur desjabetze honetaz gain, jasotzen dela baita Beotibar pilotalekuko aldagelak eraberritzea, Alde Zaharreko bizilagunentzat bizikletak gordetzeko guneak egitea, Bedaioko Abadetxeko obrak gauzatzea eta Santa Luziako lur eremuan lehenengo sektorea ziurtatzeko agiriak garatzea. Orduan banatu zen bezala kreditu aldaketa berez 1.135.000 euro da, eta Aurrekontu aldaketa 1.137.000 eurotakoa”.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV:

“Arratsalde on denori, kreditu aldaketari ez diogu eragozpenik jarriko, baiezkoa esan genuen egin genuen batzorde hartan; baina argibidea eskatu dugu bizikleten inguruko Proiektutaz zerbait entzun dugulako. Hirigintzan ere, ez da egon zuen aurkezpenik. Bestalde, beste baten bertsioak, medio publikoetan, baina ez det ez ikusi eta ez entzun zein mailatan dagoen edo zer den hori”.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Oraintxe bertan aurkeztutakoa, hau da, hemen argi ikusten zena zen mugikortasun ikuspuntu batetatik eta Alde Zaharreko bizikidetzari begira, interesgarria zela. Izan ere, askotan agertzen zen arazo bat edo eskaera bat zela Alde Zaharreko bizilagunek bizikletak eta karro guztiak uzteko leku baten beharra zutela. Horren aurrean auzo-hiritarrekin bilera bat egin zen, eta gure sorpresarako 90 lagun agertu zitzaizkigun. Ondorioz, gure asmoa zen lokal txiki bat habilitatu eta 20-30 bizikletantzat leku bat bideratzea. Hala ere, eskaera dextente handiagoa bideratu zen: 200 bat bizikleta eta umeen karritok uzteko eskaera sortu delako; eta ondorioz, proiektuaren bideragarritasuna garatzeko partida handitu da. Aurreikusten zen eta aurreikusten da, oraindik aztertzen dago Hirigintzan proiektua. Momentun honetan egiten ari ganena gune egokia zein den aztertzea da. Honen bidez, lurak eraberritzeko proiektu batzuk, hau da, bizikletak uzteko leku seguru eta inguruari armonia erantsiko diona kontuan nahi dugu izan.

Konturatzen gara Alde Zaharra espazio berezia dela, baina Alde Zaharra bultzatu nahi badugu, edo jendea Alde Zaharrera bizitzera erakarri nahi badugu, zerbitzuak eskaini behar zaizkie. Gaur egun, egiten diren etxegune berrietan, gehienak, parking-a dute etxe azpian, gehienak igogailuak dituzte; eta Alde Zaharrak ez ditu gauza horiek. Baditu beste gauza batzuk jendeari erakartzen dietenak, baina erakartzen den neurrian edo erakargarria den neurrian, zerbitzu gehiago eskainiz bizilagunari, batez ere zaharrari, orduan eta Alde Zaharra eraberritzeko aukerak handitzen dira. Hortan datza proiektua eta momentu honetan aztertzen gaude.

**5.- Kreditu aldaketa eta egonkortasuna.
Komunikazioa Plenoari.**

**5.- Modificación de Créditos y estabilidad.
Notificación al Pleno.**

Kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna ebaluatzeko egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

“Administrazio izaera duten entitateen 2014ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 3/2014 kreditu aldaketa espedientearen ondoren, betetzen du 2014rako ezarritako zor publikoaren helburua, baina ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren kasuan helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. Erregelari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udaltzari, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Gastu arauaren kasuan berriz, helburua ez betetzearen arrazoia ez da izan diruzaintzako gerakinaren erabilera.

Hala ere, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko jarraibideak onartzen duen 2013ko azaroaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren Akordioaren 3. Erregelari jarraituz, gastuaren araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordezkari, lehen aipatu den komunikazioa aurkeztu diezaizkete Udaltzari, kontuhartzaileak sinatua, finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baina baldintza hauek betetzen badituzte:

- 2013ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki positiboa izatea.
- 2014rako defizit eta zor helburuak betetzea.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan da 2013ko likidazioan (2.394.113,46 euro) eta diruzaintza kalkulatu duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 5.282.683,13 euro, eta Iurreamendi egoitzak, 435.235,67 euro).

2014an, defizitaren helburua, diruzaintza gerakina erabiltzearen eragina kenduta, eta zorraren helburua betetzen dituzte.

Baldintzak betetzen direnez, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udaltzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udalaren 3/2014 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren 2014ko behin-betiko aurrekontuak 2.113.071,16 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

2/2014 kreditu aldaketarako espedientearen ondoren, aurrekontuak 1.037.154,16 euroko defizita zuen. Beraz, 3/2014 kreditu aldaketarako espedienteak 1.075.917,00 euroko defizita sortu du.

Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena

Defizit horren arrazoa diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 3/2014 kreditu aldaketaren espedientea finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 1.076.917,00 euro erabili dira, eta honen eragina kenduta, espedienteak 1.000,00 euroko superabita du.

3/2014ko kreditu aldaketaren ondoren, hau da administrazio izaera duten entitateen egoera:

Egonkortasuna (3/2014)	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2014	Aldaketa 1/2014 (SEC) 2014	Aldaketa 2/2014 (SEC) 2014	Hasierako 3/2014 (SEC) 2014
Sarrerak Kap.1 - 7	31.239.150,00	31.894.321,73	31.894.321,73	31.954.404,73
Gastuak Kap. 1 - 7	29.374.850,00	32.934.675,89	32.931.475,89	34.067.475,89
Superabita / Defizita	1.864.300,00	-1.040.354,16	-1.037.154,16	-2.113.071,16
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		1.918.043,79	1.918.043,79	2.994.960,79
Finantzaketa ahalmena	1.864.300,00	877.689,63	880.889,63	881.889,63

Diruzaintza gerakinaren erabilerearen eragina kenduta, behin betiko aurrekontuak, 3/2014ko kreditu aldaketaren espedientearen ondoren, 881.889,63 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Gastuaren araua

2013ko eta 2014ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 20 da, 3/2014 kreditu aldaketaren ondoren.

Kalkuluak egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA (Kreditu aldaketa 3/2014)	BATERATUA (SEC) 2014
2013ko aurrekontu likidazioaren gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	26.134.551,45
2013ko aurrekontu likidazioaren interesak	-243.946,80
Finatzaketa lotua duten gastuak 2013an	-801.106,88
2013ko gastu konputagarria	25.089.497,77
2014ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	34.067.475,89
2014ko interesak	-283.200,00
SEC doiketak:	
-2014an inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-492.000,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-1.200.768,94
Finatzaketa lotua duen gastuak 2014an	-1.995.117,63
Araudian egindako aldaketen eragina dirubilketa	-25.930,00
2014ko gastu konputagarria	30.070.459,32
Gastu konputagarrien bariazioa	19,85%
Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen eragina	2.747.057,94
Portzentaian	10,95%
Gastu konputagarrien bariazioa Gerakinaren eragina kenduta	8,90%

Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen eragina 2.747.057,94 eurokoa izan da egin diren kreditu aldaketa espedienteetan.

Honen eragina kenduta ere 2013 eta 2014ko gastu konputagarrien arteko bariazioa %9 da.

Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena

Lehendabiziko baldintza

Goien zerrendatutako entitateek aurrezki garbia positiboa izan dute 2013ko likidazioan (2.394.113,46 euro) eta diruzaintza kalkulatzeko erabiltzen duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 5.282.683,13 euro, eta Iurreamendi egoitzak, 435.235,67 euro).

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2014rako zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan xehatzen dira datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA (Kreditu aldaketa 3/2014)	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2014
ZOR BIZIA 2014/12/31an	11.514.089
SARRERA Arruntak (1-5) kap. 2013ko likidazioa	27.273.121,69
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	42,22%
MUGA	95,00%

Defizitaren kasuan, lehen ikusi dugun moduan, diruzaintza gerakina erabiltzearen eragina kenduta, helburua betetzen dute.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 3/2014 kreditu aldaketa guztira 1.321.900,00 eurokoa izan da eta finantziazio iturriak 3 izan dira:

Kreditu transferentziak	184.900,00
Aurreikusi gabeko sarrerak	60.083,00
Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina	1.076.917,00

Diruzaintza gerakina ondorengo kapital gastuak egin ahal izateko erabiliko da:

Inbertsioa lurretan (Santa Luzia, Korreo 9)	416.000,00
Zenbait eraikinetako obrak (Abaetxe eta Beotibar)	350.000,00
Argi publikoa (LED luminariak)	39.031,00
Hondakinen kudeaketarako konpostadoreak	22.000,00
Bestelako inbertsioak. Landa garapena. Nekazaitza hazitegia	44.886,00
Bestelako inbertsioak. Bide publikoak. Bizikleten aparkalekua	157.000,00
Planeamendua	20.000,00
Kapital transferentziak Hirigintza	27.000,00
Akzioak eskuratzea	1.000,00
GUZTIRA :	1.076.917,00

Gastu hauek ez dira errepikakorrak eta ez dute Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Lehen adierazi den moduan, goien aipatutako entitateen aurrezki garbia 2.394.113,46 euro izan da 2013ko aurrekontuaren likidazioan, kontuak bateratu ondoren. Eta 2014ko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da (126.434,00 euro).

Kontuak bateratu aurretik, entitate bakoitzaren egoera hau da:

	Aurrezki Garbia 2014
Udala	1.406.434,00
Iurreamendi	0,00
Erretengibel S.A.	0,00
Tolosa Lotzen S.A.	-1.280.000,00

Udalaren kasuan, aurrezki garbia sarrera arrunten %6,1 da. Normalean, ratio hau %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da, gutxienez.

Iurreamendi eta Erretengibelen kasuan aurrezki garbia 0 da. Iurreamendi egoitzan ez dira aurreikusten inbertsio berririk eta Erretengibel S.A.n Udalaren ekarpenekin eta saltzeko dituen etxebizitzekin finantzatzen dira.

Tolosa Lotzen S.A.k berriz, aurrezki garbia negatiboa du, Laboral-Kutxaren mailegua (1.305.000 euro) osorik itzuli egin behar delako 2014an. Gastu hau ez da hurrengo ekitaldietan errepikatuko.

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen kontu bateratuen 2014ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 3/2014 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da, bateratze mailan, entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketa-ondorioz ez dela konprometituta geratzen.”

Plenoa jakinaren gainean gelditzen da.

6.- Kreditu konpromezuaren onarpena.**6.- Aprobación de Crédito de Compromiso.**

Tolosako Udalak hitzarmen bat sinatzeko asmoa du M^a Paz Amonarriz Eizmendi, Francisco José Goya Amonarriz, Jose Antonio Goya Amonarriz eta M^a Pilar Goya Amonarrizekin T.2 eremuko Santa Lucia- 5. Partzelako ordainketa zehazteko.

Santa Luciako T.2 eremuko 5. partzelako desjabetza espedientea dela eta, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2011ko maiatzaren 9ko epaian, lursail horien balio justua 909.888,87 eurotako zela zehaztu zuen.

Auzitegi Gorenak, epai horren aurka Tolosako Udalak ezarritako kasazio errekurtoa gutxietsi du eta, ondorioz, Tolosako Udalak ordaindu beharreko kopurua 909.888,87 euro dela berretsi du.

2010eko martxoaren 31ean, 309.288 € euro ordaindu zirela kontuan hartuz, 600.600,87 euro ordaintzea geratzen da, dagozkion interes legalarekin. Hau da, 826,689,46 euro.

Halaber, adostu dute balio justu hori ondorengo epeetan ordainduko duela Tolosako Udalak:

2010/03/31 ordainduta	309.288,00
2014/07/30 (%50)	413.344,73
2015/02/28 (%25)	206.672,37
2016/02/28 (%25)	206.672,36
Guztira	1.135.977,46

Beraz, urte anitzeko gastu baten aurrean gaude eta honek eskatzen du konpromiso kreditu bat onartzea.

Gastu horren zati bati aurre egiteko, 2014ko aurrekontuan 413.344,73 euroko kreditua aurreikusten da 3/2014 kreditu aldaketa espedientea tramitatu eta gero.

Konpromisu kredituak etorkizunerako konprometitzen diren urte anitzeko gastuak dira.

Gastu hau baimentzeko onartu behar den konpromiso kredituaren kopurua, gastua exekutatzeko aurreikusten diren ekitaldi bakoitzeko, ondorengo hau da:

2015 ekitaldia	206.672,37
2016 ekitaldia	206.672,36

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2002 Foru Arauaren 22. artikulua araberak, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromisu kredituen zenbateko metatua ezin du izan likidatutako azken ekitaldiko sarrera arrunten % 25 baino gehiago.

2015rako konpromisu kredituak hauek izango lirateke:

- Elosegia parkea: 1.000.000 euro
- T.2 eremuko Santa Lucia- 5. Partzela: 206.672,37
- Guztira: 1.206.672,37

2016rako konpromisu kredituak hauek izango lirateke:

- Elozegi parkea: 1.000.000 euro
- T.2 eremuko Santa Lucia- 5. Partzela: 206.672,36
- Guztira: 1.206.672,36

2013ko lididazioan sarrera arruntak 22.918.496,68 euro dira.

2015ko eta 2016ko konpromiso kredituak sarrera arrunten % 5,27 dira. Beraz, 21/2002 Foru Arauaren 22.artikuluak jarritako baldintzak betetzen ditu.

Beraz, hau kontutan izanik eta Ogasun Batzordeak 2014ko ekainaren 20an jaulkitako diktamenarekin bat etorri, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Aipatutako konpromiso kredituak onartzea.

7.- Tolosa Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko 2014ko programa onartzea.

7.- Programa de racionalización de recursos humanos del Ayuntamiento de Tolosa para el año 2014.

Tolosako Udalak, bere giza baliabideak planifikatzeko eta antolatzekeo prozesuaren barruan, ordezkari sindikalarekin adostuta, neurri batzuk hartu ditu lanpostu batzuk sustatzeko eta egokitzeko, ordezkari politiko eta sindikalen artean akordio batera heldu eta gero, ikusita lanpostu horiek beharrezkoa zutela beren kategoria profesionala egokitzea antolamenduaren barruan. Guzti hau, 2005 urtean egin zen lanpostuen balorazioan du bere jatorria.

Akordio hori hainbat dokumentutan dago jasota, eta haietan bi aldeek, politikoak eta sindikalak, azpimarratu dute beharrezkoa dela hastea berrantolatzen zenbait lanpostu, teknikoki desfasatuta geratu direlako, gaur egun dituzten eginbeharrekin konparatuta. Aipatu diren dokumentuak eta bilerak gauzatu daude 2012ko uztailaren 23ko osoko bilkuran. Han, espresuki bere eranskinetan, jasota daude, batetik, konpromisoen dokumentu bat hitzarmen kolektibo bat onartzeko, sinatuta, eta, bestetik, zenbait neurri kolektibo batzuen sustapen profesionala gauzatzeko eta haiek dagokien sailkapen taldean eta kategoria profesionalean egokitzeko.

Hau kontutan izanik, 2014 programari buruzko proposamena aurkeztu da

Testu honetan jasotzen dira udal gobernu taldeak egindako eta onartutako ekarpenak, ordezkari sindikalarekin adostu eta gero.

1. Xedea.

Programa honen helburua da onartzea neurri eta tresna batzuk, optimizatzeko Tolosako Udaleko giza baliabideak, udal gobernuaren organoak ezarritako ildoen bidetik.

Programa honen bidez gauzatu nahi da Enpresa Komiteak eta Udal Gobernuaren taldeak izenpetutako konpromiso dokumentuan lortutako akordioen atal bat, udal langileen lan hitzarmenaren esparruan, 2012ko uztailaren 12ko osoko bilkurako akordioaren arabera.

2. Aplikazio eremua.

Programa honen aplikazio eremuak Tolosako Udaleko karrerako funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko langileak hartzen ditu. Lanpostuak betetzeko neurriak barne sustapen mugatuko prozesuen bidez

gauzatuko dira. Haietan mugatu egiten da langileen partaidetza hautapen oinarrietan jarritako baldintzak betetzen dituztenengana, deialdiak onartzeko unean egin daitezkeen salbuespenen kalterik gabe.

3. Indarraldia.

Programa honen indarraldia izango da Udalak Osoko Bilkuran onartzen duenetik hasita, programan aurreikusitako neurriak amaitu arte, eta gehienez ere 2015eko maiatzaren 31 arte.

4. Helburuak.

Gobernu taldeak proposatutako helburuak lortzeko, jarduketa hauek eramango dira aurrera:

4.1. Karrerako funtzionarioen barne sustapenerako neurriak: birsailkapen profesionala daukaten baino goragoko titulazio taldera, baldin eta betetzen badituzte legeak ezarritako baldintzak. Neurri honetan honako kolektibo hauek sartuko dira:

a) Kirol monitoreak
Oraingo sailkapen taldea: C2
Proposatzen den sailkapen taldea: C1
Eskatzen den hizkuntz eskakizuna: 2
Derrigortasun data: indarrean

b) Usabalgo kirol instalazioetako harreragileak
Oraingo sailkapen taldea: E
Proposatzen den sailkapen taldea: C2
Eskatzen den hizkuntz eskakizuna: 2
Derrigortasun data: indarrean

c) Liburutegiko laguntzaileak
Oraingo sailkapen taldea: C2
Proposatzen den sailkapen taldea: C1
Eskatzen den hizkuntz eskakizuna: 3
Derrigortasun data: indarrean

4.2. Lan kontratuko langile finkoen barne sustapenerako neurriak: daukaten kategoria profesionala baino goragokora igotzea, baldin eta betetzen badituzte legeak ezarritako baldintzak. Zehazki, honako plaza eta lanpostu honi dagokio:

a) Kulturako administraria
Oraingo kategoria profesionala: C2
Proposatzen den kategoria profesionala: C1
Eskatzen den hizkuntz eskakizuna: 3
Derrigortasun data: indarrean

4.3. Berrantolaketa honen ildotik, begiratu egin dira aipameneko lanpostuetako pertsonalaren titulazio eta eraketa baldintzak. Horrela, C1 sailkapen taldeko titulazioa eskatzen da kirol monitore eta liburutegiko laguntzaile plazak betetzeko; eta C2 taldeari dagokion titulazioa, Usabaleko harreragileentzat.

4.4. Lan kontratuko pertsonalaren kasuan, C1 sailkapen taldeko titulazioa eskatzen da kulturako administrari plaza betetzeko.

5. Neurriak.

Helburu horiek lortzeko helburuarekin, programak honako neurri hauek onartzea proposatzen du:

5.1. Plantilla eta lanpostuen zerrenda egiteari buruz:

5.1.1. Kiroletako eta Kulturako departamentuetako plazak eta lanpostuak aldatzea, aurreko puntuan adierazitako moduan, titulazio talde bikoitza jarriz (C1/C2) kirol monitore eta liburutegiko laguntzaileei, eta C2 taldea ezarriz kiroletako harreragileei.

Sailkapen honen ondorioz, programa honetan aurreikusitako neurriak hartuko dira bidezko prozedurei ekiteko, aipameneko lanpostuak hornitzeko. Kasu honetan barne sustapen mugatuko prozesu bat artikulatuko da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, bermatuz legeak aurreikusten dituen publizitate eta lehiaren printzipioak.

5.1.2. Lan kontratuko langilearen kasuan, konkretuki kulturako administrari postuaren kasuan, ez da beharrezkoa inolako aldaketarik egitea lanpostuen zerrendan. Izan ere, lanpostu horrek sailkapen talde bikoitza du eta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna dauka.

6. Dokumentuak.

Giza baliabideen arrazionalizazio programa honako elementu hauek osatuko dute: aldatutako lanpostuen motibazio eta justifikazioen dokumentazioa, prozesu hau erakusten duen lanpostuen zerrenda eta espedientean azaltzen diren dokumentuak.

Hau guztia ikusirik eta Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, aho batez

ERABAKI DUTE

LEHENA.- Onartzea dokumentu hau eta bere eranskinak: "Giza Baliabideen Arrazionalizazio Programa – Tolosako Udaleko Enplegu Plana". Dokumentua espedientean agertzen da eta azalpen zatian deskribatua izan da.

BIGARRENA.- Onartzea Lanpostuen Zerrendan eta Giza Baliabideen Plantillan egin beharreko aldaketak.

HIRUGARRENA.- Onartutako Plana, Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrenda eta Langileen Plantilla jendaurrean jarrita edukitzea 30 egun baliodun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatuz eta Udaletxeko Iragarki Taulan jarriz.

Parte hartzeak:

... Lore Agirre Zipitria, Bildu:

“Gaur onartzen dugun dokumentu honetan zenbait lanpostu egokitzen dira, bere karrera profesionalekin bat egiteko, zehazki, hainbat lanpostu: liburutegiko laguntzaileak, kirol monitoreak, Usabalgo harreragileak eta kulturako administraria. Hala ere, hau onartzeko Konbenioa itxi aurretik pixkat bat ibilbidea azaldu nahiko nuke: Udal honetan 2003.an onartu zen azkeneko lanpostu baloraketa, zeina 2005an amaitu zen, baina lanpostu batzuk baloratu gabe gelditu ziren eta beste batzuk baloratu gabe bi legegaldietan zehar ez zaizkie egin beharrezko egokitzapenak. 2011. urtean, hauteskunderen ondoren, Komitearekin negoziatzen hasi ginen Udaleko langileen lan baldintzak arautuko zituen hitzarmena zegokion prozedura jarraituz. Tokatu zitzaigun Espainiako Estatuko Gobernuak 2/2012 Legea eta 20/2012 Errege Dekretua onartu zituela eta, beraz, Hitzarmena legealdi horretan ez geneukala sinatzerik. Orduan, erabaki zen 2012. urtean hiru ataleko konpromisoa sinatzea: alde batetik, Udaleko langileen lan baldintzak errespetatzen zituen dokumentu bat; beste alde batetik, lanpostuak betetzeko eta egokitzeko plangintza onartzea, hauetako bat da gaur onartzen dena; eta Udal langileen eros ahalmena berreskuratzeko edo bidea egiteko konpromisoa hartzea. Hau 2012ko uztaileko Osoko Bilkuran ekarri zen, batez ere, Udal talde guztiak gonbidatzeko konpromiso hau sinatzera. Momentu horretan Udal Gobernuak soilik sinatu zuen Komitearekin konpromiso hau eta oposizioak denbora eskatu zuen. Urte bete beranduago, 2013ko uztailen, Pertsonal Batzordean, garai horretan ultraaktibitatearen gaia tratatu genuenean, Udal Batzordeko kideek, berriro ere, udaleko langileen eskubideak bermatzen eta indarrean zeuden lan baldintzak luzatzen jarraitzeko konpromisoa hartu genuen, eta bide batez, berriro ere oposizioari gonbidatu zitzaion konpromiso testu hau sinatzera. Urte bete beranduago erantzunik ez genuen jaso. 2013ko azaroaren 6an Udal Komiteak eskatu zien oposizioko kideei erantzun bat, eta momentu horretan, EAJ/PNV-ko kideak hurrengo Batzordean gaia tratatzea eskatu zuten. Horretan gaude, 2013ko abenduaren 18ko Pertsonal Batzordean, eta momentu horretan ailegatu zitzaigun gure konpromisoa ez zutela berriro sinatuko, batez ere, negoziaketa Udalaren barruan eman behar zelako. Baina negoziatzea zaila da, borondaterik ez badago. Gaur, aldiz, badirudi behintzat, bi urteren ondoren hau onartzean, proposatu zen konpromiso horren zati batekin ados gaudela guztiok. Batzordean, behintzat, horrela aipatu zen. Gaur onartuko dugun Giza Baliabideak arrazionalizatzeko programa hau eta konpromisoko bigarren zati bat. Beraz, poztekoa da behintzat zati bat onartzen dela ikustea. Bide honetatik, bi urte beranduago, berriro gonbidatu nahi zaituztet konpromiso hau sinatzera, azken batean, langileen lan baldintzak errespetatu eta bermatzeko bidea hau delako, eta hemen gauden 17ok ez garelako ezer, Udaleko langilegoa bakarrik. Beraz, esandako: gonbidatuta zaudete berriro ere konpromiso hau sinatzera, langileen lan baldintzak errespetatzeko”.

8.- Tolosako Udala Goiener, S.Koop-ean, bazkide kolaboratzaile gisa onartzeko eskaera.

8.- Solicitud para que el Ayuntamiento de Tolosa forme parte de Goiener S.Koop. como socio colaborador.

Goiener irabazteko asmorik gabeko kooperatiba bat da, %100ean energi-eredu berriztagarrien alde lan egiten duena eta gaur egungo eredu energetikoa aldatzeko asmoa duten ehunaka lagun biltzen ditu bere baitan.

Eredu alternatibo bat eraikitzeko herritarren konpromisoan oinarritutako proiektua da, Euskal Herrian sortua eta inolako dependentziarik ez duena ez gobernuengandik, ez bestelako erakundeengandik ere. Herritar bazkideek osatzen dute.

Bazkide horien ekarpenak energia berdea erostea ahalbidetzen dute, iturri berriztagarrietatik sortutakoa, horien kontsumoa areagotuz. Etekinak, sorkuntza proiektu berritzaileetara bideratuko da.

Tolosako Udalbatzak, 2010 abenduaren 28ko Osoko Bilkuran Alkateen itunarekin bat egitea onartu zuen. Europako egitasmo honekin bat eginez Tolosak 2020 urterako 3 konpromiso hartu zituen: energiaren kontsumoa % 20an gutxitzea, energi berriztagarrien erabilera %20an handitzea eta C02 isurpenak %20an gutxitzea.

Energiaren kontsumoa azken urteetan behera egin du, eraginkortasun energetikoan aurrerapen handiak egin bai dira. CO2 isurpenak gutxitzeko Tolosak bere ekintza plana du, PAES deiturikoa. 2020 urterako isurpen hauek %20an jaitea ez da hain urrun ikusten plangintza hori garatzen badugu. Iturri berriztagarrietatik energiaren %20 lortzea, ordea, oso zaila ikusten da gaur egungo legedia aldatzen ez bada. Espainiako gobernuek bultzatutako azken energi arloko dekretuen bidez, energi berriztagarrien inguruko inbertsioen errentagarritasuna asko zaildu da.

Hori dela eta, Goiener bezalako kooperatibekin kolaborazioa oso interesgarria da. Alde batetik etorkizunean Tolosan kontsumitzen dugun energiaren portzentaje bat iturri berriztagarrietatik lortzeko bidea izan daitekeelako eta bestetik kooperatiba honek aholkularitza zerbitzu bat eman dezakeelako, energi berriztagarrien proiektuak Tolosan garatu ahal izateko.

Bestalde, Goiener Kooperatibaren Estatutu Sozialen 21. artikuluan, kooperatibaren gizarte helburua betetzen laguntzeko bazkide-laguntzaileen izaera xedatzen da. Hitzez hitz, honela dio:

“21. artikulua.

- 1- Bazkide-laguntzaileak izango dira kooperatibaren gizarte-helburua betetzen lagun dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak, izan gizartean edo izan kooperatiban.*
- 2- Kontseilu Errektoreak onartuko ditu Bazkide-laguntzaileak; horiek aldi baterako izan daitezke.*
- 3- Kontseilu Errektoreak adieraziko du, bere erabakien bidez, onartuek nola lagundu dezakete eta zer eskubide eta betebeharrak dituzten.*
- 4- Bazkide horien botoak ez dira izango boto guztien ehuneko hamar baino gehiago Batzar Nagusian eta Kontseilu Errektorean, non eta bazkideak ez diren sozietate kooperatiboak.”*

Kooperatibaren Estatu Sozialen 48. artikuluan, berriz, kooperatibaren bazkide izateko egin beharreko hasierako nahitaezko ekarpenak zehazten dira: hitzez-hitz honela dio:

“48. artikulua. Nahitaezko ekarpenak. Bazkide mota guztiek ez dute hasierako nahitaezko ekarpen bera; honela banatzen da:

- Bazkide-erabiltzaile kontsumitzaileak 100€*
- Bazkide-langile mugagabeak: 1.000€*
- Iraupen mugatuko bazkide-langileak: 100€*
- Pertsona fisikoak diren bazkide-laguntzaileak: 100€*
- Pertsona juridikoak diren bazkide-laguntzaileak: 1000€”*

Bestalde bazkideen betebeharren artean esaten da bazkideek ez dutela jardungo kooperatibaren helburuarekin lehian dagokeen gauzetan. Jakinarazi nahi da, Tolargik, energia elektrikoaren banatzen duen udal enpresa, partehartzea duela CHC enpresan, energi elektrikoa komertzializatzen duena. Hori dela eta Goienerrek aztertu beharko du gai honek eragozpen bat suposatuko dezakeen, Tolosako udalaren bazkide-tza onartzeko.

Hau dena kontutan izanik eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa Batzordearen diktamenarekin bat etorritik, aho batez,

ERABAKI DUTE

Lehendabizi: Tolosako udala Goiener Kooperatibako bazkide-laguntzaile izateko dagokion eskaera egitea Kooperatibako Errektore Kontseiluari, azalpen zatiaren amaieran azpimarratutako xehetasunarekin.

Bigarrena: Goiener Kooperatibako bazkide-laguntzaile gisa onartua bada Udala, kooperatibaren kapital sozialera hasierako nahitaezko 1.000€-ko ekarpena egitea.

Hirugarrena: Erabakiaren berri Goiener Kooperatibako Errektore Kontseiluari eta kontuhartzaitzari ematea.

Parte hartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Nik uste, egokiena Goiener Kooperatibakoek aurkezpena egitea dela. Beraz, nahi duzunean, hartu hitza eta, lehenik eta behin, mila esker etortzeagatik”.

Goiener Kooperatibakoak aurkezpena egin du. Bere azalpena espedientearen jasotzen da.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

“Apunte txiki bat bakarrik. Guk ere pentsatzen dugu etorkizuna ez baldin bada nuklearrekin berriztagarriekin izan behar duela, baina guretzat lehentasun bat izan behar duela lehendik dugun enpresak, Tolargi S.L. Enpresak. Teknikoak txostenean aipatzen zuen Goiener-eko bazkide ezin duela izan, kompetentzia zuzena badu bazkideak. Guk badaukagu garbi, hemen aipatu dezuten bezela, garrantzitsua dela guretzako Tolargi S.L. . Guk nahi genuke, badaezpara ere, gaia ondo begiratzea, gero arazorik izan ez ditzagun”.

... Hasier De Los Ríos Soraluze, Bildu:

“Arratsalde on, eskerrik asko. Guk askotan hitz egin dugu honetaz. Udal Gobernu honek beti egin du energia berriztagarrien apostua, energia berriztagarriak garbiagoak direlako, ez dituztelako hondakin arriskutsurik sortzen, ingurumenarekiko inpakturik ez dutelako eta, izenak dioen bezala, energia berriztagarriak berritu egiten direlako, ez direlako agortzen behin batean eta lurralde desorekatuak orekatzen dituztelako baita. Beste alde batetik, Udal barruan dauden konpromisoak bultzatzen dituela: alde batetik, isurketak %20a gutxitzea; bestalde, %20 kontsumo hori jaistea, eta nola ez, %20 energia berriztagarrien bitartez lortzea. Eta hori gure apostua izan da betidanik. Horrez gain, komentatzen zenuten bezela, lehenengo gatazka hasierako inbertsioetan egon daiteke. Horregatik, gaur egun, Gobernu hau honetan laguntzeko prest dago, hori baita gure apostua. Hori horrela esanda, esan genuen bezala Batzordean bazkide laguntzaile egiteko apostu hori defendatzen dugu”.

9.- Ekainaren 28a, gay, lesbiana eta transexualen eskubideen nazioarteko eguna. Adierazpen instituzionala.

9.- 28 de junio, día internacional de los derechos de gay-s, lesbianas y transexuales. Declaración institucional.

Jarraian Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
EKAINAREN 28A LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN HARROTASUNAREN EGUNA
DELA ETA**

Ekainaren 28an ospatzen da Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Harrotasunaren Eguna. Hori dela eta, Tolosako Udalak, Osoko Bilkuran, gaitzetsi egiten du LGTB pertsonen pairatzen duten diskriminazioa eta, era berean, berretsi, aurtzen ere, gure konpromisoa kontra egiteko sexu orientazio eta genero identitateagatik dauden aurreiritziei eta diskriminazioari. Diskriminazio horren oinarria dago, hain zuzen ere, harreman heterosexualak –nagusi den maskulinitate sexista bati lotuak daudenak- pribilegiatzen dituen gizarte batean.

LGTB kolektiboek eta Mugimendu Feministak egindako borrokari esker lortu dira, azken urteotan, lege aldaketa garrantzitsuak eta oinarritzko eskubide zibil batzuk parekatzea. Halere, Gai, Lesbiana, Bisexual, Transgenero eta Intersexualen Nazioarteko Elkarteak egindako txostenak datu kezkarriak ematen ditu.

Txosten horren arabera, munduko 78 herrialdetan zigortu egiten dira sexu bereko pertsonen arteko harreman sexualak. Zenbait kasutan heriotzarekin zigortzen da edota espetxealdi luzeekin. Gainera, NBEko % 40 estatutan kriminalizatu egiten dira, oraindik, harreman mota horiek. Eta, EBko hainbat herrialdetan, mota horietako elkartzeak ez daude legislatuta eta, era berean, eragozpenak dituzte askatasunez mugitzeko sexu bereko bikotez osatutako familiek. Txosten horrek berak hauxe dio: LGTB pertsonen duintasunari erasotzen dioten aurreiritzi, jarrera eta jokabideak hortxe dirautela gizarteko eremu desberdinetan.

Illo horretatik, Arartekoaren bulegoak zabaldu berri dituen txostenen arabera, eraso homofobiko eta transfobikoak gertatzen dira, modu nabarmenean, Gipuzkoako ikastetxeetako ikasgeletan: ikasle mutilen % 8k eta neskatilen %40k diotenez, ekintza homofobikoren bat jasan izan dute azken urteotan. Konkretuki, ikasleen %65ek irainak jasan ditu; eta %3,7k bazterketaren bat. Horrek guztiak erakusten du lehentasuneko dela martxan jartzea tresna batzuk, hain zuzen ere, egoera hauek ikustarazteko, prebenitzeko eta hauen kontra borrokatzeko; horretarako, eskola komunitatea beharrezkoa den informazioaz eta prestakuntzaz hornitu behar delarik.

GIB/HIES-aren kontrako borrokari dagokionez, zaintza epidemiologikoko azken txostenetan ikusten da HSH gizonen arteko transmisioa dela handiena (%54) eta bere eragina handitzen ari dela urtetik urtera. Hortaz, beharrezkoa da guardia ez jaitea borroka honetan eta prebentzioa egitea, batez ere kontuan hartuta gobernu guztiak murrizketa zientifikoak eta medikoak egiten ari direla. UNO-SIDAK oraintsu esan duenez, horrek mundu osoan izango du eragina.

Transexualen egoerak gure lehentasunen artean jarraitu behar du egoten. Nahiz eta aurrerapen batzuk lortu diren Genero Identitatearen Legea onartzearekin -eta Osasunaren Mundu Erakundeak behin betiko baztertuko duelakoan transexualitatea buruko gaixotasunarekin lotzea-, jakin badakigu kolektibo horren kontrako aurreiritziak daudela eta diskriminazioa pairatzen dutela. Gauzak horrela, kolektibo horrek gizartetik baztertua izateko arrisku handia du, hain zuzen ere, zailtasunak dituztelako beren generoa legez errekonozitzeko, eragozpenak dituztelako lan munduan sartzeko eta oztopoak aurkitzen dituztelako osasun-arreta publikoa jasotzeko.

Horren guztiaren aurrean, Tolosako Udalak, Osoko Bilkurak onar dezan, ADIERAZPEN INSTITUZIONAL

hau aurkezten du:

Tolosako Udalak bere jarrera irmoena erakusten du, genero eta sexu dibertsitatearen aurkako aurreiritzi eta erasoen kontra.

Tolosako Udalak aldarrikatzen du pertsona orok duela eskubidea askatasun sexual eta afektiborako, norberak bere identitatea definitzeko eta nork bere harremanak aukeratzeko.

Tolosako Udalak jarraitzen du konpromisoarekin, askatasun sexual eta afektiboaren alorrean, kontra egiteko eskubide-urraketei; eta horretarako, konpromisoa hartzen du LGTB kolektiboei arreta eskaintzeko eta prebentzio mekanismoak ezartzeko, Udalaren atal eta departamentu desberdinen bidez.

Era berean, Tolosako Udalak eusten dio politika aktiboak sendotzeko konpromisoari -genero eta sexu berdintasun, askatasun eta dibertsitatearen aldeko prebentzio, sentsibilizazio eta heziketaren alde-; eta, ildo horretatik, jarraitzen du, batetik, egikaritzen koedukazio-proiektua, ikastetxei zuzenduta; eta, bestetik, zabaltzen Jabekuntza Eskolaren heziketa programazioa. Hauek guztiak Tolosako Udalaren Berdintasun sailak bultzatutako ekimenak direlarik.

Adierazpen instituzionala bozkatu egin da eta aho batez onartu egin da.

Parte hartzeak:

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Arratsalde on berriro. Denak ados, adierazpen instituzionala da eta. Bakarrik bi gai edo bi iritzi: nahiz eta urtero adierazpen instituzionala egin, nik uste dut ez dela oso gogoan eta beti gogoratu egin behar dela nolako istiluak sortzen diren gay, lesbiana eta transexualen kontra. Eta bigarren go iritzia edo ideia, nire ustez, ikertzearena da, hori bai dela, nolabait derrigorrezkoa. Tolosako Udalak politika aktiboak sendotu eta jarraitu egin behar duelako eta konpromezu hori bermatu”.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

“Gure ustetan, derrigorrezkoa da euskal instituzio guztiak Giza Eskubide guztien urrapenen aldeko posizionamendu argi eta irmoa izatea, diskriminazio horren aurkako posizio garbia edozein dela eta diskriminazio horren arrazoia. Jatorria, kolorea, adina, generoa edo, kasu honetan bezala, bere sexu orientazioa edo genero berdintasuna. Gizarteak normaltasunez onartzen dituen estereotipoetatik kanpoko denari bideratzen zaizkio begirada kritiko guztiak. Orain astebete, gutxi gorabehera, Emakundek antolatu zituen Udal Ikastaroak Miramar Jauregian, non aztertzen zen komunikazio publikoa edo kazetaritza, oso interesgarriak izan ziren. Eta bururatu zait, agian, adierazpenak proposatzen dituen ekimenez gain, hemendik aurrera Tolosako Udalak egiten dituen orientazio publiko guztietan eta harreman sexualak aipatzen direnean, erreferentzia egitea bai harreman hetereo, bai homosexual, harreman lesbikoak eta horrez gain, transexualak eta bisexualei aipamena egitea ere. Zertarako? Bat, gure herriko inor baztertua sentitu ez dadin; bi, herriak barneratu dezake eta normaltzat har dezan pertsona orok askatasunez nola sentitzen duen bere gorputza eta nola harremantzen den beste gizakiekin; eta azkenik, hitzen sozializazioa egiteko. Hitzak ez direlako hitz soilak, baizik eta esanahi handia izaten dutelako bere baitan”.

... Rosa M^a Urkola Irigoien, Bildu:

“Ekainaren 28an, lesbiana, gay, transexual eta bisexualen Eskubideen Nazioarteko egunaren inguruan, pertsona orok sexu aukera liberako duen eskubidea gogorarazi eta aldarrikatu nahi dugu. Oraindik ere gizarte patrialkar eta hetero sexista honetan, heteroetatik kanpo gelditzen diren pertsonak,

pertsona atakatuak dira eta egoera horri aurre egin behar zaio. Hala ere, ez dugu egun ekintza batetara mugatu behar. Nahiz eta legedian aurrerapen garrantzitsuak egin diren, batik bat kolektibo hauek eredu hetero patriarkalaren aurka eginiko lanari esker, oraindik ere bereizkeria, estigmatizazioa eta gizarte bazterketa sortzen du joera sexual eta genero identitateko aniztasuna. Gure gizartean oraindik bizirik dirau jarrera homofoboak. Benetako askatasunak pertsona guztien arteko berdintasunen datza. Ez dugu gizarte liberrik izango ez badugu berdintasunezko gizarte bat eraikitzen, pertsona guztien sexu askatasunerako eskubidea bermatu behar dugu. Eta horren gain, hezkuntza arloan badugu erronka, jarrera sexual eta sexu identitate askeak garatzen lagunduz eta aniztasun sexualari buruzko eskola bizikidetzak garatuz. Eta arrazoi duzu, hizkuntza ere zaindu beharko dugu gure adierazpenetan”.

**10.- Foro Errepublikanoak aurkeztutako 10.-Moción presentada por Foro Republicano.
mozioa. Erreferendum egiteko Propuesta de Referéndum.
proposamena.**

Bildu eta Foro Errepublikanoak adostutako mozioa irakurri du idazkariak. Honela dio mozio honek:

“Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean Tolosako udalak honako adierazpen hau onartzen du:

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Tolosako Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkari.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.

Espainiar herriarekiko elkertasunez eta ariketa demokratiko gisa, Espainiako Gobernuari premiaz eskatzen diogu deitu dezala erreferendum bat, Espainiar herritarrek libreki aukeratu dezaten zein estatu-eredu nahi duten eta aukeratu dezaten monarkia eta errepublikaren artean.”

Jarraian PSE-EE taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du Idazkariak. Honela dio:

“El Ayuntamiento de Tolosa reconoce el valor de la Constitución de 1978 como pacto de convivencia, desarrollo social y como punto de partida del Estado de las Autonomías.

El Ayuntamiento de Tolosa considera que la situación que estamos viviendo hace evidente la necesidad de proceder a su reforma, sobre la base de un amplio consenso social y político, para la consecución de tres objetivos principales:

- Incorporar a la Constitución mecanismos que garanticen el Estado de Bienestar.
- Fortalecer y ampliar los derechos fundamentales de la ciudadanía.
- Reformar la estructura territorial del Estado en un sentido federal.”

Jarraian bozkatu egin dira bi mozioak. Emaitzak hauek izan dira:

- PSE-EE-k aurkeztutako mozioa: ez da onartu. Aurka Bildu eta EAJ -ko zinegotziek bozkatu dute (15), alde PSE-EE-ko zinegotziak bozkatu du (1).
- Bildu eta Foro Errepublikanoak aurkeztutako mozioa onartu egin da: Alde Bildu-ko zinegotziak agertu dira(8), EAJ-ko eta PSE-EE -ko zinegotziak abstenitu egin dira (8).

Parte hartzeak:

Foru Errepublikanoak hitza hartu du. Bere partaidetza espedientean jasotzen da.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Arratsalde on berriro. Antxon (Foro Errepublikanoaren ordezkariari zuzentzen zaio) ia-ia zurekin ados nago, baina zuek egin duzuten aldaketa lehen mozioarekin eta bigarren mozioarekin ez dakit zer ikusirik duten bata bestearekin. Nik, penarekin, horrela esango dizut: zuek aurkeztu duzuten azken mozioa ez dakit erabakitze eskubidearekin bat datorren ala ez, eta ez dakit zein Errepublika eta zein eremu territorialetaz ari zareten hitz egiten. Hori, nolabait, argitu beharko zenukete. Hala eta guztiz ere, nik ez dut kontra bozkatuko eta, gainera, ez dut monarkia defendatuko. Tolosako alderdi sozialistak badaki zer den Errepublika, badaki detailatzen Errepublika, ez dakit besteek, baina guk bai. Bestela historioan pentsatu eta ikusiko duzute. Hala ere, ez dakit monarkia eta errepublika den asunto bakarra, hemen ez dakit zuen aldetik edo alderdi batzuen aldetik badago oportunismo kutsu bat. Nire ustez, edo gure ustez, sakonki aztertu behar da zer nahi den, ez bakarrik monarkia eta errepublika, baizik eta zer nolako Estatua nahi dugun. Errepublika esatea askotan ez da asko. Orduan, guk esaten dugun bezala, gure mozioan, zer nahi dugun erantsi edo zein aldaketa nahi ditugun Konstituzio berri batean. Guk esaten dugun bezala, Ongizate Estatuko politika bermatu, eskubide fundamentalak ere bermatu, eta azkenik, Estatu modelo batetaz hitz egiten ari garenez, hitz egin dezagun Estatu federal batetaz. Hori nahi genuke, eta nik pertsonalki hori defendatzen dut, Konstituzio berri batean, hori jarri beharko genukeela. Baina zuen mozioan, eta ikusirik nola zen lehen mozioa, ni nahiko ados nengoen lehen mozioarekin, baina bigarren honekin, nolabait, gatz pixkat sartu duzute eta nolabait zuen arteko negoziazio batean anbiguotasuna asko sartu duzute, baina hala eta guztiz ere, ez dago argi zer esaten duzuten. Abstenituko naiz. Ez nago kontra, esan dudana bezala, gu Errepublikaren alde gaude, behintzat, Tolosako Alderdi Sozialista beti hala izan da eta monarkia ez dut defendatuko, noski”.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

“Arratsalde on berriro. Guk proposamen honen aurrean abstentziaz bozkatuko dugu. Eta hasiko naiz argumentuak esplikatzeko: eztabaida hau ez dugu gureganatu nahi. Nahi dugu eztabaida honetatik urrundu. Argi dugu Estatu honetan gaudela, hori ez dugu zalantzan jartzen, baina ez da guk nahi dugun debatea. Aurreko batean, orain dela urte bat izango zen, debate hau izan zen eta mozio bat aurkeztu zen; debate horretan, Foro Errepublikanoaren aldeko mezu bat egin genuen, zabaldu genuen, baina zen, hain zuzen ere, Errepublika garaian etsai baten kontra, etsai berdinarekin kontra ibilitakoei babesa eskaintzea zen asmoa. Babesa eskaintzea izan zen nagusiki mozio horren helburu. Gaurko debatea ezberdina da. Gaur mahai gainean dagoena da Estatu bezala, Estatu ala ez, gobernatzeko zer eredu nahi dugun: errepublika batetik ala monarkia bestetik. Hor Antxonek esplikatu du zein ibilbide gertatu izan den. Baina, gu, gure parte hartze honetan, ez gara hor sartuko. Gure

helburua da ea nork eskaintzen digun guk nahi dugun hori: gure burujabetasuna indartzeko eta egonkortzeko zein bide eskaintzen dizkiguten batak eta besteak. Eta horrela, honelako proposamenak eginda, zer eratako jarrera dagoen horren aurrean. Hori da benetan guri interesatzen zaiguna. Baditugu ere beste zenbait eredu horiei buruz hitz egin daitezkeenak paradigma; adibidez, Frantzia badugu Errepublika bat eta ikusten dugu ere, euskarak bizi duen egoera, kasu honetan: inolako aitortzarik ez du eta ikusten dugu ere etorkizunari begira euskarak zein egoera bizitzen duen, eta zer neurri hartzen dabilzan. Eta horregatik, bereziki, esaten dugu debate honetatik urrundu nahi dugula. Ez dugu honetaz hitz egin nahi eta, horregatik, abstenituko gara”.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Eskerrik asko Foro Errepublikarrari. Jakinarazteagatik, bi mozio daude. Ez dakit bietan abstenitzekotan zaudeten (EAJ-ri zuzentzen da), izan ere, lehenengo PSE-EEkoa bozkatuko da, non 1978ko Konstituzioaren zilegitasuna bermatzen den bereziki, eta ez dakit EAJ-k zer esango duen. Badaezpara ere, zuek jakiteko. Hor egindako alegazioetan eta hitz egin dugun saioetan, hemen argi eta garbi geratzen da, ikerketa antzekoa egiten genuen: subjektua zen aldatzen zena, eta horregatik guk, hemen, Udal taldetik esaten genuen Espainiar herriko elkartasunez, noski, ikuspegi demokratiko batetatik, askoz ere demokratikoagoa dela espermatozoide bidez eskualdatzen den Gobernu mota bat baino, edo gizarte eskaera bat baino, herritarrek aukeratzea. Izaera demokratiko batetatik hori ebidentea da. Gerora, Frantziako Errepublikan ikusten den bezala, oso errepublikarrak izango dira, baina herri edo nortasun txikiten dituzte eta, txikitzen gaituzte, gure herria eta kultura ikusten den bezela nola txikitzen duten Euskal Herriaren ekialdean. Hala ere, biabilitadea ikusten dugu, eta horregatik adosten dugu. Zergatik? Denok egiten genuelako abdikazio honen testuingurua oso irakurketa antzekoa, edo guk behintzat. Estatu karkomaten ari da barrutik. Hau da, Estatu benetako krisi egoera batean dago eta abdikazio honek horri erantzuten dio, Estatu hau Frankismotik datorren erregimen baten jarraipen bat besterik ez da, 1978ko Konstituzioa hori besterik ez da izan, zilegitasunik ez zuen Euskal Herrian ez zelako onartua izan. Guk ez diogu inolako zilegitasunik ematen nahiz eta eragiten digun Konstituzio horrek Eta bestalde, bipartidismoaren hausketa, azkeneko hauteskundeetan ikusi da, eta ikusten da nola doan bipartidismoa beheraka. Eta horrek <<todo atado, todo bien atado>> hirian esaten zuten, arazoak ekarri ditu. Eta ondorioz, hemen ematen ari dira mugimendu azkar eta kontrol gabeak.

Gaur egun daukagun erregimena Frankismotik datorren eredu politiko instituzionala da. Eta horrela da, izen berdinak agian ez, baina abizen berak daude botere egitura honetan. Zenbait instituzioen izenak aldatu gabe, hor dirau Audientzia Nazionala, adibidez. Beraz, guretzako testuinguru honetan argi daukagu Espainiar herriak eta erdaltasunez, eta Errepublika mugimendua garen neurrian, elkartasunez beraiek erabaki beharko dutela zer Estatu izaera nahi duten. Euskaldunok Lehen Errepublikaren aldekoak gara. Guk, behintzat, oso argi daukagu Lehen Errepublikaren bila goazela. Espainiarrek haiek erabaki beharko dute beraien Estatu izaera zein den, elkartasunez, guk apostu egiten dugu beraiek beren buruaz auto definitzeko, auto determinatzeko; baino guk, euskaldunok, gure burua eta gure herrien eskubideak gauzatzea nahi dugu. Eta guretzat postura demokratikoa, 1978. urtean eman ez zen postura demokratikoa nahi dugu, ze lehen hemen irakurtzen nuen, Jose Ignacio, zure mozioan: <<La reforma>>. Garai horretan eztabaidatu egiten zen eta. <<La reforma o la ruptura, nosotros optamos por la ruptura. Porque no nos ofrecen nada este Estado>>. Orduan, eta gerora pasa zintaten, <<los dos objetivos principales: Estado del Bienestar>>, lehenengoa. Baina zuek aldatu zenuten duela bi urtetako Konstituzioa lehentasuna ematen zorraren ordainketari, nola izango dugu <<Estado del Bienestar>> zorra ordaintzea baldin bada lehentasuna eta Konstituzioa bi egunetan aldatzen horretarako? Horrez gain, <<fortalecer, y estableces los derechos fundamentales de la ciudadanía>>. Hori zer da Audientzia Nazionalaren ematen diren sumarioak, egoten diren atxiloketa sumarioak eta gero bi urtetara inongo deliturik egin gabe esatea absolutua izan dela? Horiek al dira <<los derechos fundamentales>>?

<<Reformar la estructura del estado en un sentido federal>>. Bai, Nafarroan oraintxe ikusi dugu. PSN-k ikusi duenean UPN-ri egindakoa, Ferraz-ek: <<Que antes una y grande que dividida>>. Orduan, hori da errealitatea. Zilegitasunaren aldetik ez diot garrantzi handia ematen, aspektu guzitiak kontuan izanik. Orduan, guk argi daukagu, egungo testuinguru historiko hau erabili behar dugula Euskal Herrian benetan demokraziaren aldeko pauso bat emateko eta lehenengo garai horretan eman ez zen haustura emateko. Haustura demokratikoa, demokrazia gailendu dadila, Euskal Herrian, eta ahal bada, Estatu Espainiarrean gailendu hobe. Hobe joango zaielako seguraski. Baina guk argi dugu, guk autodeterminatu nahi dugu. Eta gure herriak izan beharreko eskubideak, 78.an ukatu zitzaizkionak, gauzatzea nahi dugu eta horren alde egingo dugu. Horregatik mozioari sarrera kendu diogu, mozioaren irakurketa desberdina egin gabe, adierazpenaren hainbat puntuetan ados egon gaitzkeelako”.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Bakarrik bi gauza: testuinguru historikoak, testuinguru historikoak dira. Ez dakit zer bozkatu zenuten, Konstituzioaren alde ala ez, baina Errepublika defendatu zutenak eta Errepublikaren alde egin zutenak, egongo dira, Torres, Ibarruri, eta abar, paktu konstituzional batetara iritsi ziren. Gero, erantzuna ez, beste gauza bat izan da, baina historiarekin kontuz ibili behar da eta errespetatu egin behar da.

<<Estado del Bienestar>>, bai, <<Estado del Bienestar>> Espainian Alderdi Sozialistatik esku joan da azkeneko 30 urteetan. <<Derechos fundamentales de la ciudadanía>>, adibidez, lehen ikusi dugu eta aztertu dugu gai lesbianak eta abarreko eskubideak. Ezkontza homosexualen aldeko Legea guk eginikoa da. Eta horregatik esaten dugu hori ere egin behar dela. Gauzak esan behar dira, dena esan behar da. Eta <<derechos fundamentales>>, badakizu zer den, bizitza errespetatu eta horretan ez naiz sartuko orain.

Eta erreforma territoriala, ba, noski. Gauzak eboluzio bat dute eta, eboluzio horretan, noski, gauzak aldatu egin behar dira. Eta horrela, esaten da mozio honetan. Noski gauzak aldatu behar direla, eta bakoitza berera, gure ustez. Beraz, PSE-EE koak ere merezi du. Bueno ba, horrela utziko dugu”.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Antxon eskertuko nuke zure balorazio finala”.

Foro Errepublikanokoak bere azken balorazio finala egin du. Bere partaidetza espedientean jasotzen da.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Eskerrik asko”.

11.-EH Bilduk aurkeztutako Euskal Kutxen etorkizunari buruzko mozioa.

11.-Moción de EH Bildu sobre el futuro de las Cajas Vascas.

Idazkariak EH- Bilduk aurkeztutako mozioa irakurri du:

“Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAeko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion -eta ondorioz KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere-oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantza betetakoa daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

A finales del pasado año se aprobó en el Estado Español la Ley 26/2013, de 27 de diciembre, de Cajas de Ahorros y Fundaciones Bancarias, desde entonces la incertidumbre se cierne sobre el desarrollo que esta tendrá en la Ley de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma Vasca y por lo tanto en los Estatutos y Reglamento de KUTXA. A menos de un año del vencimiento del plazo para la transformación de las Cajas de Ahorros Vascas en Fundaciones Bancarias se desconoce cuál va a ser el procedimiento para la elección de sus futuros Órganos de Gobierno.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko-hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz

Además, los últimos meses portavoces autorizados de KU-TXABANK han venido realizando declaraciones en las que se anunciaba

ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentraiak eta Memorandum Of Understanding-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkezten ditu Tolosako Udaleko Udalbatzak eztabaidatu eta onartu ditzan:

- 1.- Tolosako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharizanetara zuzendu dezatela eskatzen die.
- 2.- Tolosako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, Kutxako Gobernu organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkartza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo

Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza

la inexorable venta de hasta un 70% de la entidad de crédito en base a supuestos dictados de la mencionada Ley, el Banco Central Europeo y el Memorandum of Understanding (MOU). Este tipo de declaraciones, al margen del objetivo final que persigan, solo sirven para confundir a la Ciudadanía, ya que ni Europa ni Madrid /obligan a la privatización de KUTXABANK.

Para un Municipio como el nuestro es de vital importancia el mantenimiento del control público de la principal herramienta financiera de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Es fundamental que KUTXABANK mantenga el espíritu fundacional de las Cajas de Ahorros que han venido funcionando en el último siglo y medio, ya que esta será la única garantía para la defensa efectiva del interés público, de la promoción de la Obra Social y de la apuesta por los intereses de la ciudadanía, el tejido productivo y la red institucional.

Por todo ello, el Grupo Municipal de EH Bildu presenta al Pleno del Ayuntamiento de Tolosa los siguientes puntos para su debate y aprobación:

- 1.- El Ayuntamiento de Tolosa insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a rechazar la privatización de KUTXABANK y exigir que su actividad se fundamente en las necesidades financieras y de la ciudadanía de nuestro territorio.
- 2.- El Ayuntamiento de Tolosa insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a que los Órganos de Gobierno de esta entidad garanticen la participación, la representación proporcional efectiva de la sociedad alavesa la renovación equitativa y democrática y la transparencia. Es por eso que insta a los actuales Órganos de Gobierno a que basen en estos principios cualquier futura modificación estatutaria o reglamentaria, haciendo valer este posicionamiento y a defenderlo en todos los procedimientos dirigidos tanto a la potencial modificación de su naturaleza jurídica como a la

arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3.- Tolosako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXako Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXako langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4.- Tolosako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXako Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAk bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.

5.- Tolosako Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXako Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6.- Tolosako Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAeko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

regulación del marco normativo de las cajas de ahorro y de otras entidades de carácter financiero.

3.- El Ayuntamiento de Tolosa insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a que las entidades fundadoras, los y las impositoras y la plantilla de KUTXA así como el resto de los municipios de Araba sean los encargados de la proposición y elección democrática de las personas que conformen sus Órganos de Gobierno e insta a los actuales Órganos de Gobierno a recoger este principio en cualquier futura modificación estatutaria o reglamentaria.

4.- El Ayuntamiento de Tolosa insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a descartar, expresamente, la elaboración de cualquier programa de desinversión o privatización que suponga la reducción de la participación de KUTXA en KUTXABANK, que seguirá siendo al menos del 32%.

5.- El Ayuntamiento de Tolosa insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Donostia, como Corporaciones Fundadoras, y a los Órganos de Gobierno de KUTXA, a manifestar igualmente su compromiso por la defensa y fortalecimiento de la Obra Social de la entidad, mostrando su disconformidad con todas aquellas modificaciones normativas que puedan ponerla en cuestión, así como respecto de cualquier operación de desinversión en Kutxabank que pueda comportar la reducción de su cuantía.

6.- El Ayuntamiento de Tolosa, insta al Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca a recoger los principios y contenidos de la presente moción en cualquier futura modificación de la Ley 11/2012, de 14 de junio, de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma Vasca o en la elaboración de una futura Ley de

Fundaciones Bancarias.

7.- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAko Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, KUTXAko Lehendakaritzari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die.

7.- La presente moción será remitida a la Diputación Foral de Gipuzkoa y las Juntas Generales de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Donostia, a todos y todas las Consejeras Generales, a la Comisión de Obra Social, al Consejo de Administración y a la Presidencia de KUTXA así como a todos los Grupos Políticos del Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca."

Jarraian, EAJ eta PSE-EE Udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurri du Idazkariak. Honela dio:

"EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNAREN INGURUKO MOZIOA

Espainiako finantza sistemaren BERREGITURATZEAREN AURREAN, Kutxa banku fundazioa bihurtzearen aginduaren aurrean, EAJ-PNV udal taldea eta PSE udal taldeak adierazten dute:

1.- Udalbatzak bere aitortza erakusten du ehun urte baino gehiagoko historian zehar Kutxak egindako lanagatik, bere gizarte lanagatik, bere finantza jardueragatik eta gure Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialean izandako inplikazioagatik, finantza eragile nagusi moduan.

2.- Udalbatza, Espainiako finantza sisteman gertatzen ari den berregituratzearen aurrean, Kutxa banku fundazio bihurtzearen alde agertzen da, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legea betetzeko, eta, alde horretatik, gobernu organoei eskatzen die beharrezko izapidetxei ekitea, bihurtze hori Legeak xedaturiko epe eta terminoen arabera gertatzeko.

3.- Udalbatzak Eusko Jauriaritzari eskatzen dio aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legeak ezarritakoa betez, aurrezki kutxei buruzko euskal legedia egoki dezala eta banku fundazioei buruzko lege propioa gara dezala, legegintzako izapidetzeak ahaibidetzen duen ahalik eta azkarren eta, nolana ere, ekitaldi honetan.

4.- Udalbatzak, Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen du, bai eta Lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekiko duen konpromisoaren jarraipena, Kutxako edo banku Fundazioko gobernu organoetan izango duen ordezkariaren bidez, eta Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio gauza bera egin dezala.

5.- Udalbatzak Kutxako gobernu organoei eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuan Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetuz ordezkariuta egoteko hastapenarekin bat.

6.- Udalbatzak adierazten du Kutxaren eginkizunak etorkizunean ere izan behar duela duen ondarea kudeatzea lurralderekiko konpromisoa irizpide erabakita, ekonomi eta gizarte garapena sustatuz, aipatu ondarearen etekinak Gizarte Ekintzara bideratuta, Jehentasuntzat izanik aipatu ondarea babestu eta handitzea, eta lurraldearekiko konpromisoaren erakusgarri, Kutxabanken kontrola Euskadin egoten laguntzen duela."

Jarraian bozkatu egin dira aipatutako mozioak. Emaitzak hauek izan dira:

- EAJ eta PSE-EE-k aurkeztutako mozioa ez da onartu gehiengorik ez duelako lortu. Emaitzak hauek izan dira: aurka Bildu-ko zinegotziak (8), ados EAJ eta PSE-EE (8).
- Bildu-k aurkeztakoa: Gehiengoz onartu da Alkatearen kalitatezko botua erabiliz. Bozketak bi aldiz egin dira. Emaitzak:

Lehenengoan Bildu ados (8), kontra EAJ/PSE-EE (8).

Bigarrenengoan Bildu ados (8+ Alkatearen kalitatezko botoa), kontra EAJ/PSE-EE (8)

Parte hartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Aurrekoan bezala, lehenengo kontra-mozioa bozkatuko dugu eta gero mozioa. Ikusten dut Kutxabank-eko Kontseilu Orokorreko kide bat dagoela. Ez dakit hitza hartu nahiko zenukeen, zuk seguru guk baino dexente hobeto kontrolatuko duzulako Kutxabank-en azken hilabeteetan gertatutakoa. Ez dakit nahiko zenukeen”.

Kutxabank-eko Kontseilu Orokorreko kideak hitza hartu du. Bere partaidetza espedientean agertzen da.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Eskerrik asko. Eztabaidatzeko inor?”.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

“Arratsalde on. Bueno, ez dakit juxtu-juxtu noren izenean hitz egin duzun, baina hala beharko du, hitz egin duzu. Esan behar da hemen gaudela sartuta. Dirudienez gezurra da. Niri esan didatenez ez da gezurra, baina hemen daukazu gure betebeharra. Guregain ez daude beste zenbait kontu, guk Rajoy-ek inposatutako plana dugu. Betebeharra dugu Konstituzio bidez espezifikoki arautu dena puntualki 15 egunetan baino gutxiagotan oraindik jarri diren defizit-ari buruzko mugak. Defizit muga horiek ekarri dituzte baita ere gizarte ongizateari kalteak. Gaur egun langabezia daudenak kobertura gutxiagoa dutelako lehen baino, menpekotasuna dutenei ere eragin zuzena izan dute. Eta guzti hori da azkenean Estatua zorretan dagoelako, zorrak handitu egin ditu eta zorrak handitzen badira eta mailegu baten eske baldin bazoaz, ba gero horren truke ordaindu egin behar duzu. Eta horretarako beharrezkoa da hau. Eta horren ondorioz gertatzen zaigu bidean gaudela. Mailegatzeko aukerak, guk dakigunez, oso oso txikiak dira. Ez ditut ikusi proposamen zehatzak hau bideragarri egiteko. Dakigunez, Kutxak funtzionatu dezake txikiagoa izanda. Bestela, hasi behar da banku fundazio bat izaten. Guk dakigunez, hori izatera pasa garelako. Beste eztabaida bat da hemen etxeko ordezkariak hitz egin duena, esan duenez hori nola antolatzen den, zein aniztasun maila ematen zaion, zein askotaritasun maila ematen zaio. Hori da beste eztabaida bat, behar dena eta guk gure mozioan hori defenditzen dugu. Esaten dugu sektore guztiek izan behar dutela ordezkatuak eta bere ordezkari judizialak. Ez dakit betiko izendatzen diren ordezkari horiek zer esan nahi duen, baina guk planteatzen duguna da Kutxa honetan aniztasuna handiagoa egotea da kideen artean eta Kutxak bere funtzio sozial betetzea. Hori planteatzen dugu guk”.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Eskerrik asko. Lehenik Jose Ignacio (PSE-EEko ordezkariari zuzentzen zaio) harritzen nau zuk hitza hartu ez izateak .70 mila milioi euro kudeatzen dituen kutxaz ari gara. Gainera eta desgraziaz, ez da posible gai honetan ez sartzea. Eta desgraziz diot ze hau da herri honetan azken urteetan eman den notizi txarrena. Gaur bertan, eta gaur Vital-en gertatu da .Eta izugarria da harreman neo liberalak eskatzen dutena egiten dutela zenbait alderdietako ordezkariak. Kutxa sortzen da bere izaera publikoa bermatzeko, Kutxa sortzen da Gipuzkoaren bizi kalitatea bermatzeko, tresna bat da, Kutxak Gipuzkoako ondasunak bildu,

kudeatu eta irabaziak gizarte politikan inbertitzeko sortzen da. Azken finean, gizartean ongizatea garatzeko tresna bat da. Gure Udaletan, Tolosako Udalean, ikusi besterik ez, zenbat, gizarte laguntzaren bidez, diru-laguntza jaso dugun, gure enpresa sarean zenbat eta zenbat inbertsio bideratu diren Kutxari esker, eta hoiek denak deusezten ari dira. Azken denboran irakurtzen dena da Kutxak eta Kutxabank-ek bidez zenbat eta zenbat euskal enpresetako parte hartzea eta partaidetza saltzen ari den.

Esan det lehen, harreman neo-liberalismoak menperatzen dute. Eta badaude alternatibak, mahai gainean jarri dira alternatibak. Baina ez dira alternatibak entzun eta, gainera, alternatiba hauekin jarri direnean azkartu egin da prozesua. Azkartu egin da eztabaida ez zelako nahi. Eztabaida horretan zenbaitzuk ez zirelako ondo sentitzen, eztabaida saihestu nahi izandu da. Horrenbesteko diru mugimenduaz lan egiten duen finantza erakunde batek hain azkar, hain korrika gauzak egitea ez da inoiz egoki. Eztabaida, esan duzun bezala, saihestu egin da. Eta aniztasuna, aniztasuna nik ulertzen dut, uste dut Espainiako ekonomian krisialdia sortu aurretik eta hemen aipatzen diren legedi aldaketa guztien aurretik, Kajen %70a kudeatzen zutela eta Banketxeak %30a. Eta Banketxeek esaten zioten Gobernuari aldatzeko legea, nahi zutelako hemen esku hartu. Baina beti bezela, etekinak dauden lekuan, pribatizazioa sustatzen da. Hori bai, behin etekinak ez daudela, orduan, karreterak nazionalizatzen dira, autopistekin gertatu den bezala.

Orduan, kontrol publikoa ezerezean uzten da erreforma honekin. Ez dago ez Batzar Orokor, ez Administrazio Kontseilu, ez partaidetza kide, alderdi, hor 15 lagunek erabakitzen dute. Eta 15 horien oinordekotza 15 horiek erabakitzen dute. Lehenago Errepublikaz ari ginen, antzeko zerbait. Hemen dedokrazia izendatzen da, eta izendatzen dute zeintzuk? Indarraren arabera: EAJ eta PP-k Araban, EAJ eta PSE Bizkaian eta, 15 eta 15, erdia gainditu dute. Orduan, izugarria da gertatzen ari dena, izugarritzko hanka sartze historikoa, izugarritzkoa, euskal eskuinarentzako ere, euskal eskuin mugimenduarentzako ere. Kutxak izan dira tresna ezin hobea gure burujabetza ekonomiko-finantzarioa sustatzeko, lantzeko, garatzeko eta hori alde batera uzten ari gara. Etorkizunerako tresna izan beharko lukeena gure herria, gure Estatuaren sorreran, alde batera uzten ari dira. Ez det ulertzen, ez det koordinatzen zer dagoen, ez naiz iristen ikustera, ez naiz iristen zergatik egiten dugun on egin dezakeen tresna bat ondo erabilia saldu, ulertzen ez dudun moduan zergatik ezin den dena jaso. Politika kasuistika batean sartuta gaude eta hurrengo adjudikazioa Kutxabank-ena ez dakit zein izango den, nahiko du lehiatu, lehiatu nahiko du munduan. Agian, txiki izanda, efizienteagoak izan gaitzeko, Estatua handitzen, handitzen, saiatu dira eta ikusi besterik ez zer gertatu den. Izan ere, oso urruti ez dugu joan behar, begira CAN-ekin gertatu zena. Begira zer gertatu zitzaizen, bulegoak jarri zituzten herri guztietan, zabaltzeari ekin zioten, eta begira non bukatu duten. Akats berbera ezin da gertatu.

Lapurreta bat gertatzen ari da. Eta hemen badirudi ezer berria ez dela gertatzen ari. Eta hemen ari gara da kontrola galtzen. Udal herriek galduko dugu urteetan jaso dugun finantzazio eredu egokia, urteetan eta urteetan gizarte politikan jaso ditugun diru-laguntzak galduko ditugu, eta gizarte ekintzaren bidez. Lehengo urtean bideratu ziren, lurreamendirentzat eta beste mila ekintza. Toki ugari finantzatu dizkigute eta dirua eman. Eta izugarria da kontrol soziala alde batetik utzi, eta 15 kidez osaturiko Kontseilu txiki batek erabakitzea. Gainera, kontseilu horren ondorekoak pertsona horiek izendatuko dituzte. Baina, zeintzuk dira pertsona horiek? Ez dut ulertzen. Beraz, nik ulertzen dut zuek batera adostu izana mozioa, eta mozioak baditu hitz politikak, baina mozio honek esaten duena eta ez dator bat. Lehenengo puntuan esaten du <<Aitortza erakusten du 100 urte baino gehiagoko historiari, lurraldearen garapena eta garapen ekonomiko sozialaren dauden inplikazio finantza eragile nagusiek izango dute burua>>. Noski, gure aitortza eskaintzen dugu, baina guk ere etorkizunean paper hori jolasten jarraitzea nahi dugu.

Esaten da Udalbatzak Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen duela gobernu organoetan izango duen ordezkariaren bidez. Ordezkari-tza? Horixe da eta lapurtzen dena. Gaur egun horren seinale dira Asanbladak eta Administrazio Kontseiluak, eta gero gardentasunez jokatzu. Gardentasunez jokatu zer da komunikabideei jakinaraztea?."

12.-LAB sindikatuak negozio kolektiboaren aldeko mozioa.

12.-Moción del sindicato LAB en favor de la negociación colectiva.

Idazkariak LAB sindikatuak aurkeztutako mozioa irakurri du. Bere edukia hau da:

“Euskal Herriko herritarren pobretze prozesua aurrera doa, langabezia tasak izugarriak dira, lana egiteak gaur egun ez du bermatzen pobrezia egoeratik ateratzea, eta egiten diren kontratazio berriak prekaritate baldintzetan egiten dira. Egoeraren gordintasuna bereziki pairatzen duten kolektiboak dira gazteak, emakumeak eta denbora luzez langabezian egon eta lan mundura sartzeko geroz eta aukera mugatuagoak dituzten 45 urtetik gorako langileak, besteren artean.

Negoiazioa kolektiboaren blokeoak errealitate gordin honen sakontzea dakar. Patronalak sektore ezberdinen negoziaketa blokeatuta dauka blokeo horrek lan harremanen desarauketaren bidean laguntzen diolako. Ondorioz Euskal Herrian soldatek sortzen ari den aberastasunarekiko geroz eta pisu gutxiago daukate, eta errealitate hau geroz eta nabarmenagoa izango da denborarekin langileei euren esparruetan hitzarmen duinak negoziatzeko eskubidea ukatzen jarraitzen bazaie. Negoziazio kolektiboa ezinbesteko tresna da aberastasunaren banaketa justoago bat lortzeko, enplegu duinaren defentsarako eta pobrezia mugak jartzeko tresna baita.

Euskal Herriko eragile politiko eta sindikal nagusiak erreforma horren kontra kokatu dira behin eta berriz. Erreformaren beharrezkeatasuna alboratu eta lan harremanen arauketaren aldeko posizioak gehiago argi batek asumitzen du.

Euskal Herriko langileek behar dituzten lan baldintzak eta Euskal Herriko gizarteak behar dituen lan harremanak ezin dira epaitegietan erabaki patronalak nahi duen bezala. Hemengo lan harremanak hemen erabakitze eskubidea eduki behar dugu.

Eremu politiko-instituzionala ezin da eztabaida honetatik kanpo. Negoziazio kolektiboa aberastasuna banatzeko tresna den heinean, gizarteak edukiko duen kontsumorako gaitasuna eta kohesio soziala bera dagojokoan, krisi honetatik nola aterako garen dago jokoan.

Hau dela eta:

- Instituzio honek negoziazio kolektiboa ezerezteko asmoz inposaturiko lan erreformaren kontra dagoela adierazten du.
- Negoziazio kolektiboaren aldeko jarrera azaltzen du, langileen lan baldintzetan eta euskal ekonomian duen onuragatik. Gure esparruan burutzen diren negoziazio eremu guztiak, bereziki herrialdeko hitzarmen sektorialak, babestu behar direla defendatzen du.
- Patronalari eskatzen dio, negoziazio kolektiboan mantentzen duen blokeo jarrera apurtzeko eta lan baldintzei eutsi, soldatak eguneratu eta lan erreformaren ondorioei aurre egingo dioten hitzarmenak sinatzeko.
- Herritarrak deitzen ditugu hitzarmenen defentsan burutzen diren mobilizazioetan parte hartzera.”

Jarraian, Idazkariak EAJ-k aurkeztutako mozioa irakurri du. Honela dio:

“EAJ-PNV NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ALDEKO MOZIOA

Tolosako udalak balioetsi egiten du negoziazio kolektiboa, patronalaren eta sindikatuen arteko harremanetarako esparrua baita.

Tolosako udalak negoziazio kolektiboa desblokeatzeko eskatzen diete patronalari eta sindikatuei.

Tolosako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sindikatuekin eta patronalarekin egiten ari den bitartekaritza lana egiten jarraitzeko eta indartzeko, Euskadin negoziazio kolektiboa bultzatzeko.

Tolosako Udalak patronalari eta sindikatuei eskatzen diete gardentasuna, langileen eta enpresarien arteko komunikazioa hobetzea eta kudeaketan nahiz kapitalean parte hartzea oinarri dituen lan-harremanen eredu berri baten alde esin dezaten.

Tolosako udalak lan-harremanen berezko eremua aldarrikatzen dute.”

Jarraian bi mozioak bozkatu dira. Hauek izan dira emaitzak:

- EAJ-ak aurkeztutakoa ez da onartu: aurka Bildu (8), ados EAJ (7), abstentzioa PSE-EE (1).
- LAB sindikatuak aurkeztutakoa onartu egin da. Alde Bildu (8) eta PSE-EE (1). Abstenitu EAJ (7).

Parte hartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Eskerrik asko”.

LAB-eko ordezkariak hitza eman die Alkateak.

LAB-ekoak hitza hartu du Plenoan; bere partaidetza espedientean jasota gelditzen da.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Puntu horiekin gu erabat ados, ez dakit, zehazki, nora doan, baina bueno. Lan erreformari uko egitea, noski, guk uko egin diogu, bai alderdi bezala eta bai Udaletxe bezala. Negoziazio kolektiboa, noski, nire ustez ultraaktibitatearen bukaera eta negoziatio kolektiboaren bukaera itzaldu nahi den puntu bat da. Besterik ez, erabat ados, eta baiezkoa emango dut”.

... Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ-PNV:

“Arratsalde on. Gai honi buruz pare bat kontu baditugu: planteatu genuen mozio baten ingurukoa. Gure ustetan eta, kontuan izanik LAB-ek aurkeztutako mozioan aurkeztu diren errealitateak hor daudela, hainbat gauzetan ados gaudela, egoera aldatu beharra dagoela, jakin badakigu. Baina ikusten dugu mozioak, azken batean, sindikatuko jarrera duela, normala da, LAB-ek aurkeztu du eta logikoki, sindikatu bat da. Logika horren arabera, badirudi bi alde daudela: alde batetik, onak; bestalde, etsaiak. Nik uste dut, adibidez, hemen bertan isladatu dugula. Adibidez, Lorek zazpigarren puntuan komentatu du arrazionalizazio asunto horren inguruan, aprobetxatu du minutu hori eta bota digu guk nahi ez dugulako ez dala negoziatzen, eta horrekin jada nahikoa da. Ba ez, nik uste dut gauza zabalagoa dela. Logika horretatik, uste dut adierazpen instituzional bezala irten behar duela, hori esaten dut denok egin behar ditugulako ikerketak, sektoreek baita, enpresariak ere. Nik, egia esan, enpresa txikiak ezagutzen ditut eta oso oso egoera txarrean gelditu direnak ere, langileen egoera txarrean erori diren horiek ere. Orduan, ez dut pentsatu nahi badaudela onak eta txarrak, nik uste dut hemen jarri behar dena dela denok medioak jarri behar ditugula adierazpen instituzional bat egiterako garaian ez dugu ikuspuntu bakar bat jarri behar, ikuspuntu anitz jarri behar ditugula eta bakoitzak bere erantzukizunak bideratu behar dituela. Hala pentsatzen dut. Negoziazio kolektiboa noski beharrezkoa dela, baina ikuspuntu aniztasun hori izanik. Gure ustetan, behintzat, lan asko dago aurrera ateratzeko eta denok egin behar dugu aurrera. Horregatik gure mozioan ez da hitz egiten patronalei edo ez dakit zeri buruz, baizik eta denon artean egin behar dugun lana dela. Beraz, Tolosako Udalak eskatu behar duena da baita ere, baina ez bakarrik hori, bai sindikatuei, bai Eusko Jaurlaritzari, bai Udalei beraiei ere, gai honetan hartu behar diren erabakiak har daitezen eta egoera honetan irteten lagunduko digun posturak sustatzeko, nolabait. Hori da gure postura, eskerrik asko”.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Gauza asko esan dituzue, baina iruditzen zaidana da gauza nahiko zentrala ahaztu zaizuela eta izango litzateke lan-erreformaren aipamena egitea, eta ez lan-erreforma honen bidez bizitza atzera pauso bat burutzen ari dela. Hala ere, gauza zentral bat da gaur egungo langilea dela pobre bat, langile izanda. Hau da, lehen dirurik ez zuen lanik egiten ez zuenak; gaur egun, langile asko arazoetan dabilta hila amaierara iristeko. Geroz eta txiro gehiago dago. Orduan, zuk aipatu duzu irtenbidetzat gure eskualdeko laguntza ematea. Udalak 170 langileen plantilla du, ez dut uste Udaletik egiten den adierazpenak enpresa gizon-emakume horien zilegitasuna duenik edo beraien bozeramaile direnik. Hemengo enpresa ez da Adegiko buruzagi politikoei daukaten burua edo enpresa-egitura bera. Argi dago Konbenio hauek ematen dutena dela Ongizate gizarte baten ikuspegi handi bat, aberastasuna banatzeko dago eta langile horri banatutako soldataren bidez tokiko merkataritza, tokiko guneetan, bertakoetan, kontsumitzen du eta ondasunen banaketa bat da. Ondorioz, ekonomia mugitzea dakar eta horrek ongizatea ekartzea gizartean. Beraz, guk baiezkoa emango diogu eta erantzun zuzena da. Eskualde honek baditu eginbeharreko asko momentu honetan gai sozio-ekonomikoaren aldetik eta era horretatik eskualdeko apostua egiteko”.

... Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ-PNV:

“Bakarrik argitzen dut gure mozioan ez dela lan-erreforma aipatzen, beharrezkoa ez dugulako ikusi, zehazki, agerraldi guztietan ere beti posizionatu gara lan-erreforma honen aurka. Orduan, beharrezkotzat ez dugu jo. Eskerrik asko”.

13.- Galde-eskeak.

13- Ruegos y preguntas.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

“Nik ez diot aipamenik egingo Udal ordenantzari, baina bai mahai ganean jarriko nuke azkeneko San Joan hauetan izan den akats bat talde guztiekin. Iruditzen zaigu eginbide publikoetan erabilera pribatu bat egiten dela. Adibidez, Kultur Etxean Udalbatza osoa atera beharrean balkoira. Haur Eskolan edukitzea pankarta haundi bat non haurrak sartzeko Udaltzaingora abisatu behar den pankarta kentzeko, bestela haurrak ezin duten sartu, ez da egokia. Kartelak jartzen direnean, kartelak erreferentzia egiten badiote pertsona konkretu bati, talde konkretu bati, komunikabide bati, edozeini, kartel horiek momentuan kendu eta erretiratu egin behar dira. Ibai zuk ere aipatu duzu, epaiketarik gabeko salaketa publikoak Erdi Aroan, zorionez, bukatu ziren eta orain badaude zorionez beste bide batzuk, bakoitzak bere iritzia emateko, salaketak egiteko, eta horrelakoak, nik uste, Administrazioan ekidin behar direla. Hori besteik ez”.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Entzuna Olatz. Eta Kultur Etxekoari, jakin banu, ez zen horrelakorik gertatuko, niri ere ez zitzaidan gustatu eta. Orduan, entzunda eta eginda. Hurrengo egunean, adibidez, denak kenduak zeuden. Gu ere konturatu ginen.

Bueno ba, eskerrik asko, publiko asko egon da, mila esker etortzeagatik”.

eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA